


Memoria

EUS

# TABAKALERA

## 2023



[tabakalera.eus](http://tabakalera.eus)



Memoria

# **TABAKALERA** 2023



# 2023 urtearen laburpena

—

2023a hazkunde-urtea izan zen Tabakalerarentzat. COVID-19aren eragin handieneko garaia pasa ondoren, Tabakalerak nabarmen hobetu zituen bisitari eta parte-hartzaileen datuak, urtean zehar egindako eskaintzarekin. Aipagarria da, esate baterako, **bisitari kopuruak izan zuen %12ko gorakada**, eta Tabakaleraren goranzko norabidea irmo mantentzen ari dela berretsi daiteke. Oso datu esanguratsua da, 2023an eraikinaren alboan gauzatzen ari diren AHTaren lanek sorturiko irisgarritasun zailtasuna kontuan hartuta. Horrekin batera, beste bi faktore izan behar ditugu kontuan: alde batetik, Kutxa Kulturren proiektu-berritzearen ondorioz, aipatu erakundeak nabarmen murriztu zuela bere eskaintza publikoa eta, bestetik, eraikina astelehenetan itxita dagoela urte hasieratik, horrek guztiak bisitari-kopuruan izan lezakeen eraginarekin. Nolanahi ere, Tabakalerak tinko eutsi zion zerbitzu publiko gisa duen erantzukizunari, eta ia **800.000 bisitari** erakarri zituen 2023an.

Horrekin batera, azpimarragarria da **parte-hartzaileen %30eko igoera** garrantzitsua ere, erakusketek, zineak, Medialabek, programa publikoek eta, oro har, egiten den eskaintza programatikoak askotariko publikoengan harrera bikaina duela erakutsiz. Esaterako, urteko hiru **erakusketa nagusiek**, *Evil Eye*, *That Time* eta *Máquinas de ingenio*. *Jakintzen bidegurutzear*-ek, **70.000 bisitaritik gora** ekarri zituzten, aurreko urtean baino %70 gehiago. 2. Erakusketa-aretoko *Batzuk*, *Situ-akzioak* *Priscila Fernandes* eta *El sueño de la sultana* erakusketek 50.000 bisitari ekarri zituzten, aurreko urtean baino %35 gehiago. Guztira, beraz, 120.000 bisitari erakarri zituen Tabakalerako erakusketen eskaintzak. **Medialabeko erabiltzaile kopuruak** ere goranzko bideari eutsi zion 2023an eta, urtea amaitzerako, ia 250.000 bisitari jaso zituen, 2022an baino **%55 gehiago**.

Halaber, 2022 eta 2025 epealdiko Plan Estrategikoaren erdialdera iritsi zen Tabakalera 2023an. Identifikatutako lehenetasuneko arloetan guztira garatu beharreko 34 proiektu estrategikoetatik, 19 landu ziren 2023an; horietatik 6 amaitutzat eman ziren, eta beste 13k jarraipena izango dute 2024an. Plan Estrategikoaren baitan, aipagarria da Euskara eta Berdintasun Planak garatzeko 2023an egindako lana: lehenengoan Tabakalerako hizkuntza-jarraibideen dokumentuan aurrerapen handia egin zen, eta bigarrenean, lan sakona egin zen, besteak beste, sexu-jazarpeneko protokoloaren

garapenean. Bi dokumentu horiek funtsezkoak dira aipatutako bi plangintzetan eta 2024rako erakundearen ezarrita egon daitezela da helburua.

Esparru honekin lotuta, azpimarratzekoa da **Plan Estrategikoaren nahiz Euskara eta Berdintasun Planen** jarraipena egiteko helburuarekin identifikatu ziren **adierazle emaitzek** bigarren urtez erakutsi zutena, kasu gehienetan **ezarritako helburura iristea lortu zuela Tabakalerak**, alegia.

Urteko aipamen bereziei dagokienez, **arte, zientzia, teknologia eta gizartearen lan lerroari emandako bultzada** nabarmendu behar dugu. Duela hiru urte abiarazitako lerro estrategikoan egindako lanari esker, nazioartean erreferentziatzeko zentro izatea lortu du Tabakalerak. Izan ere, Alemaniako Gobernuak CIRCE (Creative Impact Research Centre Europe) programaren parte izendatu baitzuen Tabakalera; horri esker, zentroak lurraldeko hainbat artista eta ikerketa-zentroren arteko elkarlana bultzatu zuen 2023an zehar. Egindako lanaren dibulgazioa urte amaieran egin zen, *Máquinas de ingenio*. *Jakintzen bidegurutzear* erakusketaren bidez. **Tokiko eta nazioarteko arte, zientzia eta teknologia zentroekin egindako elkarlan-sarea sendotu** egin zuen Tabakalerak eta, honenbestez, baita **gizarte-berrikuntzaren laborategi gisa duen izaera ere, kulturaren ekonomian eragiteko aukerak** sortuz.

**Sorkuntza bultzatzeko zentro gisa** egindako aurrerapausoa handia izan zen 2023an. Aipaturiko arte, zientzia, teknologia eta gizartearen lan lerroan ez ezik, artearen eta ikus-entzunezkoen esparruan ere urrats berriak eman zituen Tabakalerak, sortzaileentzako deialdi eta programazio-eskaintza hobetuz eta zabalduz. Lehen aldiz, **tokiko, estatuko eta nazioarteko erakunde esanguratsuekin aliantzak** egin zituen joan-etorriko egonaldiak eskaintzeko. Esate baterako, Etxepare Euskal Institutuaren laguntza izan zuten Anbereseko **Morphorekin eta Glasgowko ACC-Hospitalfield-ekin, Chillida Lekurekin, UPV/EHUrekin**, Bartzelonako **Hangar** arte-ekoizpen eta ikerketarako zentroarekin, edo **CCCB** kultura garaikidearen zentroarekin lankidetzan egin ziren egonaldi horiek. **JAI udako arte eskolaren** laugarren edizioa ere antolatu zuen, **Artiumekin** elkarlanean eta **Oteiza Museoren** parte-hartzearekin.

Arte-erakusketen esparruan bereziki gogoangarria izan zen Tabakalerarentzat 2023a. Hedabide orokorretan eta artean espezializatutako hainbatetan urteko erakusketa onenen zerrendan agertu zen, esaterako, **That Time. Arte Ederren Bilboko Museoa-Tabakalera** erakusketa, lehen aldiz Bilboko museoko bildumatik ekarritako hainbat artelan esanguratsurekin batera Tabakalerak ekoiztutako lanak ere erakutsi zituen, eta **40.000 bisitariko errekorra** lortzeaz gain, zentroari ikusgarritasun handia eman ziona. **Máquinas de ingenio. Jakintzen bidegurutzan** mostrak, bestalde, urrats handia ematea ahalbidetu zion Tabakalerari artea, zientzia, teknologia eta gizartea elkartzen dituen lan-eremuan, eta baita lurraldeko enpresa zientifiko eta teknologiko esanguratsuenekin lankidetzaren sare sendoa ere.

Artearen esparruarekin amaitzeko, ez dugu aipatu gabe utzi nahi **Eusko Jaurlaritzak arte-lanen** zuen parte-hartzea, Bilboko Arte Ederren Museoarekin eta Artium Museoarekin batera, Tabakalerak ekoiztutako arte-lan batzuk ondare publikoaren parte bihurtu direlarik, besteak beste, *That Time* erakusketarak bereziki ekoiztutako Ainara LeGardonen *Pausa Pulsar* soinu-lana eta Isabel Hergueraren *La gallina ciega* ikus-entzunezko arte-lana.

Bestalde, **Administrazio Kontseiluak Tabakalerako zine eta ikus-entzunezko laborategiaren proiektua onartu zuen 2023an**. Proiektu berri honek 2de0 euskarazko ikus-entzunezko laborategia du jatorrian, eta Donostiako Zinemaldiarekin eta Elías Querejeta Zine Eskolarekin lankidetzan landu zen, haren ikuspegi estrategikoa Tabakalera osatzen duten erakundeek sortutako zinema eta ikus-entzunezko hub-aren testuingurura zabaltzeko. Laborategi berria, beraz, funtsezko tresna bat izan beharko litzateke Tabakalerako ekosistemaren estrategia bateratua sendotzeko, zinema eta ikus-entzunezko sorkuntza-zentro gisa. Horrekin batera, baliabide gehigarri bat izango da ikus-entzunezkoen arloan jada ibilbide emankorra egiten ari den eta **“Tabakalera belaunaldiaren”** parte den zinegile taldea zabaltzen joan dadin. Tabakalera belaunaldi horren azken aldiko adibide apartak dira, esaterako, Estibaliz Urresola, Jaione Camborda edo Elena Martín Gimeno. Halaber, euskarazko sorkuntza sustatzeko Audiogile berriak izeneko soinu-fikziozko deialdia atera zuen estreinako urtez Tabakalerak, EiTBrekin elkarlanean.

New European Bauhaus sarearen parte den heinean, Tabakalerak sorkuntzaren bidez kulturatik harago egin dezakeen inpaktuan lanean jarraitzen du, bereziki sormen hiritarrean, sorkuntzan eta jasangarritasunean zentratuta, **Medialab-Tabakalera berdea** proiektu estrategikoaren bidez, arteek eta herritar berrikuntzak jasangarritasunari egin diezaioketen ekarpena birpentsatzeko. Horren erakusgarri da ehun-gaiak, moda eta upcycling-arekin lotuta sortu zen proiektua, sortzaile gazteei zuzendua. Betile Crocanti izenarekin, 2023an abian jarri zen ekimenaren helburua

gazteei zuzendutako talde irekia sortzea da, modu kolektiboan eta joskintzaren bidez, hondakinei eta bazterrean utzitako elementuei alternatibak bilatzeko. Horrela, berreskuratutako gaiekin ehun-mota berriak, jantziak, eskulturak eta tramankulu mota berriak sortzea da asmoa, haien patua aldatu, eta gizarteko ohituren eta ekoizpenen moduen inguruan hausnartzeko. Tabakalerako **erabiltzaileen esperientzia hobetzeko** proiektuan esku-hartze garrantzitsuak egin ziren 2023an, aurreko urtean hasitako bidea jarraituz. Eraikina erabiltzen duten askotariko erabiltzaileen beharrei ahalik eta egokien erantzuteko **zenbait gune berri** gaitu ziren, arrakasta handiz: 0 solairuko plaza altzari berriekin eta programazioari buruzko informazio gehigarriarekin atondu zen, egonaldi erosoagoa eskaini dezan; haur txikiarentzako propio diseinaturiko espazio berria, bileretarako etxolak, edo dantzarako erabiltzen den ispilua. Horrez gain, 2. solairuko gune publikoan **hiri-altzarigintza proiektu bat** garatzeko lehiaketa bat antolatu zuen Tabakalerak, **UPV/EHurekin eta Baskegurrekin lankidetzan**. Erabiltzaileen ibilbideak errazteko eta programazio-eremuak hobeto identifikatzeko, seinaleetika lanketa osatu zen, bai eraikin barruan eta baita kanpoaldean ere.

Azkenik, Tabakaleraren kudeaketari dagokionez, azpimarratzekoa da eraikinak hartzen dituen kanpo ekitaldietarako **espazioen alokairu eta zerbitzuek** inoiz izandako diru-sarrerarik handienak lortu zituztela 2023an, **urteko helburua %25ean gaindituz**. Diru-sarreraren igoera honi esker, **autofinantzaketaren ratioa %29koa izan** zen, aurreko urtekoa baino 4 puntu altuagoa, hain zuzen.




# 2023 Datuetan


## Kultura garaikidearen nazioarteko zentroaren (KGNZ) datuak

Eraikineko bisitariak		Programako parte-hartzaileak		Antolatuko programa-kopurua		Ratioa parte-hartzaileak / bisitariak	
2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022
776.715	696.148	<b>GUZTIRA</b> 395.352	301.603	690	823	<b>%50,70</b>	%43,30
		Erakusketak 126.886	84.775	7	5	%16,30	%12,20
		Zinea 7.306	5.884	89	112	%0,90	%0,80
		Medialabeko erabiltzaileak 247.176	159.948	211	163	%31,80	%23,00
		Jarduerak 12.764	51.175	383,0	543,0	%1,60	%7,40


Programako parte-hartzaile kopurua bisitari kopuru orokorrarekiko




Eraikineko bisitariak 2023 vs 2022



Programako parte-hartzaileak KGNZ: 2023 vs 2022




KGNZko programako parte-hartzaileak:




**Tabakaleran dauden erakundeen artean lorturiko datuak:** Etxepare Euskal Institutua, Donostia Zinemaldia, Euskadiko Filmategia, Elías Querejeta Zine Eskola, Kutxa Kultur Fundazioa, LABe.

Eraikineko bisitariak		Programako parte-hartzaileak		Antolatuko programa-kopurua		Ratioa parte-hartzaileak / bisitariak	
2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022
776.715	696.148	<b>463.916</b>	402.650	<b>1.085</b>	1.497	<b>%59,7</b>	%57,8
		<b>GUZTIRA</b>					
		Erakusketak	156.678	10	10	%22,6	%22,5
		Zinea	17.765	197	231	%2,7	%2,5
		Medialabeko erabiltzaileak	159.948	211	163	%31,8	%23,0
		Kontzertuak	6.498	115	121	%0,4	%0,9
		Jarduerak	61.761	552	1.135	%2,3	%8,9


**Programako parte-hartzaile kopurua bisitari kopuru orokorrarekiko**




**Eraikineko bisitariak 2023 vs 2022**



**Tabakalerako erakunde guztien artean egindako programako parte-hartzaileak**



**Erakunde guztien artean egindako programako parte-hartzaileak:**



## Adierazle nagusiak

2023	Helburua	Eraitza	2022
Erkidegoko herritarrek erakundeaz duten ezagutza-maila (soziometroa)	%70	<b>%68</b>	%72
Bisitari kopurua	700.000	<b>776.715</b>	696.148
Programako parte-hartzaile kopurua: KGNZ eta Tabakalera osoa	KGNZ 300.000	<b>KGNZ 395.352</b>	KGNZ 301.603
	OSOA 400.000	<b>OSOA 463.916</b>	OSOA 402.650
Erabiltzaileen balorazio orokorra (inkesta)	8	<b>8,3</b>	8

2023	Helburua	Eraitza	2022
Sortzaileen balorazioa (asebetetze-indizeari buruzko inkesta)	8,5	<b>8,1</b>	<b>8,7</b>
Artista eta sortzaileen formakuntza, sorkuntza eta garapen profesionalera bideratutako baliabide ekonomikoak (2023tik aurrera)	X	<b>742.044</b>	X
Aurrekontuaren exekuzioa (%)	%100	<b>%97</b>	%98
Autofinantziaketa ratioa (%)	%27	<b>%29</b>	<b>%25</b>
Plantillako langileen batz bestekoa	<45	<b>42</b>	<b>41</b>



## 2023 Aipamen bereziak

### Tabakalera, Europako 5 laborategietako bat Alemaniako Gobernuaren artea, zientzia, teknologia eta gizartearen inguruko CIRCE proiektuan

Alemaniako gobernuak arte, zientzia, teknologia eta gizarte proiektuak ikertzeko aukeratu zuen Tabakalera, Europako beste lau zentrorekin batera. Honenbestez, **Alemaniako Gobernuak** kultura-politika sortzaileak ikertzeko zentro-laborategiekin egin zuen Creative Impact Research Centre Europe (CIRCE) programaren parte bihurtu zen Tabakalera, eta 300.000 euroko aurrekontua jaso zuen 2023an. Proiektu honen baitan, hainbat artisa lurraldeko zientzia-eta teknologia-enpresa garrantzisuenetako batzuekin lankidetzan aritu ziren urtean zehar, eta elkarrekin garatutako proiektuak **Maquinas de ingenio. Jakintzen bidegurutzean** erakusketan aurkeztu ziren urte amaieran. Horrez gain, Tabakalerako lantaldeak CIRCE ekimenaren baitan nazioartean antolatutako hainbat jardunalditan hartu zuen parte, eta Tabakalera bera ere nazioarteko topaketa horietako baten egoitza izan zen.

### Tabakalera berdea, New European Bauhaus ekimenaren baitan

Europako Batzordeak Europako Bauhaus Berria-ren bazkide estrategiko izateko aukeratu zuen Tabakalera 2021ean. Ekimena Next Generation EU planaren baitako proiektu estrategikoetako bat da, eta diseinua, jasagarritasuna, irisgarritasuna, eskuragarritasuna eta inbertsioa uztartzea du helburu, Europako Itun Berdea betetzen laguntzeko. Ildo honetan, Tabakalerako 2022-2025 proiektu estrategikoaren baitan, **Medialab-Tabakalera berdea** proiektua nabarmen indartu zuen 2023an Tabakalerak, diseinua eta berrikuntza, herritarren sormena eta ekonomia zirkularra batuko dituen programazioaren bidez, agenda berdearen balioei erakunde kultural publiko batek nahiz sektore kulturalak eta sortzaileek egin diezaioketen ekarpen espezifikoen erreferente izateko helburuarekin.

### That Time. Arte Ederren Bilboko Museoa-Tabakalera, Bilboko Museoarekin lankidetzan antolatutako erakusketa, Tabakalerako inoizko bisitatuenean artean

Urteko mugarri nagusienetako bat izan zen *That Time. Arte Ederren Bilboko Museoa-Tabakalera* erakusketa. Oihartzun zabala izan zuen hedabideetan, eta bisitari kopuruari dagokionez markak hautsi zituen, 40.000tik gora bisitarirekin.

### Tabakalera eta DIPCren arteko lankidetzak, astronomia herritarrengana gerturatzeko

11.000 bisitari eduki zituen DIPCk Tabakaleraren laguntzarekin antolatutako STROM erakusketak. Herritarrei astronomia ikuspegi inklusibo batetik gerturatzen zien mostra honek erakusketa eredu berri bat proposatu zuen, eta publiko berrietara iristeko aukera eskaini zuen.

### Tabakalera belaunaldia indarturik zinearen eta artearen esparruetan

Tabakaleraren egiteko nagusia sorkuntzaren sustapena izanik, urte oparoa izan zen 2023a. Tabakalerak sortzaileen lana babesteko eskaintzen dituen programetan parte harturiko hainbat sortzailek errekonozimendu garrantzitsuak jaso zituzten bakoitzak bere arloan: beste batzuen artean, NOKA programatik igarotako Estibaliz Urresolak *20.000 especies de abejas* filma aurkeztu zuen eta sariz betetako ibilbideari ekin zion; Ikusmira berriak egonaldi programatik igarotako Jaione Cambordak Zinemaldiko Urrezko Maskorra eskuratu zuen *O corno* bere lehen film luzearekin; eta Tabakalerako sortzaileen gunetik igaro izan den eta zenbait erakusketetan parte hartu izan duen Nadia Barkate artistak Gure artea saria irabazi zuen.

### Zinea eta teknologia talde irekia, Sabadell Fundazioaren proiektu babestua.

Medialabek antolatu eta Elías Querejeta Zine Eskolaren laguntza duen laborategi esperimentera honen helburua mugimenduzko irudi eta soinuari aplikatutako teknologia analogiko zein digitalen erabilerari buruz modu kritikoan hausnartzea da. Sabadell Fundazioaren babesa jaso zuen 2023an.

### Eremu publikoan erabilera eta zerbitzu eskaintza berriak izandako arrakasta

Tabakalera barruko guneko publikoetan eskaintzen diren zerbitzu berriek harrera bikaina izan zuten. 0-6 txokoak haur txikiak dituzten familiei leku atsegina eta seguru bat eskaintzen die; 3. solairuko Ispiluak nerabe eta gazteak elkartzen ditu dantzarako eta koreografiak entseatzeko prestatutako leku bat eskainiz; ping pong mahaia aisialdirako beste aukera bat gehiago da; eta bileretarako etxolek, lan bilera eta topaketak egiteko azpiegitura eskaintzen dute. 2023an zehar ping pong mahaia 1.279 erreserba izan zituen, eguneko 4, batez beste, eta bileretarako etxolak 945 aldiz erreserbatu ziren, egunean hiru aldiz, batez beste.



CIRCE proiektuaren aurkezpen prentsaurrekoa.



Memoria

# **TABAKALERA** 2023

1. PROGRAMAZIO ETA ZERBITZUEN ESKAINTZA
2. KOMUNIKAZIOA
3. KUDEAKETA
4. 2022-2025 PLAN ESTRATEGIKOAREN  
JARRAIPENA
5. ADIERAZLEAK

# 1. Programazio eta zerbitzuen eskaintza.

## SORTZAILEEI ZUZENDUTAKO ESKAINTZA

### Artea

Programa	Deskribapena eta parte-hartzaileak	Betetako helburuak
<b>Egoiliar gonbidatuak</b>	<p>Tabakalerak zuzenean gonbidatu zituen zenbait artista, erakusketetako parte izango ziren lanak ekoiztu zituzten.</p> <p>2023an bi egoiliar gonbidatu pasa ziren Artisten gunetik: Many of Them kolektiboa eta Christian Salablanca.</p> <p>Horiez gain, <i>That Time</i> erakusketarako hiru lan ekoiztu ziren espreski Tabakaleraren eskariz.</p>	<p>Tabakalerako programazioan parte hartuko duten sortzaileek, bertan lan egiteko gonbidapenarekin, sorkuntza prozesuak eta harreman sareak aberastea.</p>


Programa	Deskribapena eta parte-hartzaileak	Betetako helburuak
<b>Deialdi irekiak</b>	<p><b>2023. urtean, guztira 365 eskaera jaso ziren, eta 17 artistek hartu zuten parte egonaldietan.</b></p> <p><b>Proiektu artistikoak garatzeko nazioarteko bi deialdi:</b></p> <p>211 eskaera jaso ziren eta zazpi artistek hartu zuten parte egonaldietan:</p> <p>Alejandra Pombo Su, Andoni Zamora Txakartegi, Ivonne Villamil, Izaskun Araluzea, Inés Cámara Leret, Marc Vives eta Marta van Tartwijk Crespo.</p> <p><b>Deialdiak beste erakunde batzuekin lankidetzan:</b></p> <p><b>UPV/EHU</b> (Artea, zientzia, teknologia eta gizartea arloko deialdia)</p> <p>22 izen-emate jaso ziren eta bost aukeratu ziren: Antton Goikoetxea, Ce Pams, Danel Garay, Oriol Pares eta Victoria Ascaso.</p> <p><b>Chillida Leku</b> (Artea eta natura/paisaia)</p> <p>44 izen-emate jaso ziren eta bat aukeratu zen: Ane Zelaia.</p> <p><b>Morpho - Tabakalera</b> (Proiektu artistikoa)</p> <p>Bost izen-emate jaso ziren eta horietako batek egin zuen egonaldia Anbereseko zentroan: Gala Knörr.</p> <p><b>CCA - Hospitalfields - Tabakalera</b> (Trukeko egonaldia, proiektu artistikoa)</p> <p>Eskozian egonaldia egiteko bost izen-emate jaso ziren eta bat aukeratu zen: Bruno Delgado Ramo.</p> <p>Tabakaleran egonaldia egiteko 27 izen-emate jaso ziren eta horietatik bat aukeratu zen: Sequoia Barnes.</p> <p><b>RACOR (Bartzelonak Hangar eta CCCB zentroekin lankidetzan)</b> (Artea, zientzia, teknologia eta gizartea arloko deialdia)</p> <p>78 izen-emate jaso ziren eta bat aukeratu zen Bartzelonan eta Donostian egonaldia burutzeko: Constanza Piña (Corazón de Robota).</p>	<p>Tabakalerak arte-sorkuntza zentro gisa duen erreferentziatzeko tokia indartzea.</p> <p>Artisten profesionalizazioan laguntzea eta artista eta proiektuen diziplina-arteko sinergiak elikatzea.</p> <p>Tokiko eta nazioarteko artisten arteko trukeak bultzatzea.</p> <p>Tokiko eta nazioarteko erakundeen arteko lankidetzak sustatzea.</p>

Programa	Deskribapena eta parte-hartzaileak	Betetako helburuak
<b>Lantegi irekiak</b>	<p>Egonaldietan artisten gunetik igarotzen diren artisten lana ezagutarazeko, urtean bitan, udaberrian eta udazkenean, <i>Lantegi irekiak</i> izeneko ate irekien jardunaldiak antolatu ziren.</p> <p>Udazkeneko ate irekien jardunaldia ikuspegi zabalago batekin antolatu zen 2023ko abenduan, eta batik bat Medialaben jorratzen den herritarren sorkuntza sustatu eta ikusarazteko jarduerak ere hartu zituen, arrakasta handiz.</p>	<p>Tabakalerak arte-sorkuntza zentro gisa duen erreferentziatzeko tokia indartzea.</p> <p>Sorkuntza prozesuak gizarteratzea.</p>
<b>Proiektu artistikoak garatzeko espazioen lagapena</b>	<p>49 proiektu lagundu ziren 2023an lagapen programaren bidez. Lagapen horietan lan-lekuak edo-eta materiala lagatzen zaie artistei beren proiektuak garatu ahal izateko.</p>	<p>Gure testuinguruko artistei proiektu artistikoak garatzeko espazioa eta akonpainamendua eskaintzea, tokiko artista-sarea babestuz eta proiektuak sustatuz.</p>
<b>JAI. Jardun Artistikoentzako Institutua</b>	<p>Artistei zuzendutako ikasketa-programa. Ikerketa, ekoizpena, pertzepzioa eta lan kritikoa sustatzen ditu. Itziar Okariz, Ibon Aranberri eta Asier Mendizabalek osatutako taldearen laguntzarekin eta nazioarteko irakasle-talde batekin batera burutzen da.</p> <p>2023an 4. edizioa izan zuen programa honek, eta aurreko urtean bezala, Tabakalera eta Artiurmekin batera Oteiza Museoak ere proiektuaren antolakuntzan parte hartu zuen.</p> <p>2023ko irakasle taldea honako artista hauek osatu zuten: <b>Zach Blas, Erick Beltrán, Anna Daučíková, Xabier Erkizia, Kiluanji Kia Henda, Julia Spínola, Miranda Pennell eta Azucena Vieites.</b></p> <p>Guztira 62 eskaera jaso ziren ikasketa programan parte hartzeko, eta tokiko, estatuko eta nazioarteko 16 artistako taldeak hartu zuen parte ikasle moduan.</p>	<p>Sorkuntza bultzatzeko baliabide gisa, artistentzako eta sortzaileentzako plataforma bat eskaintzea, eztabaidarako eta topaketarako giroa sortzea, eta errealitate artistiko garaikidearen behatoki gisa funtzionatuko duen lantoki bat gaitzea.</p>
<b>Eremuak</b>	<p>Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren programa da, helburu duena euskal ehun artistikoa indartzea, bereziki talentu hasiberriari dagokionez.</p> <p>2023an Eremuak-ek testuinguruko artisten topaleku diren jardunaldiak antolatu zituen Tabakalera, kasu honetan nazioartekoak: <i>Down with the Scene Kid 606</i>.</p> <p>Parte-hartzaileak: Phill Collins, José Ramón Amondarain, Leire Muñoz, Iñaki Garmendia, Johanna Gustafsson, Mikel Escobales, Itziar Markiegi, Alejandro Alonso, Elena Aguado, Borja de Aquino (Disdira), Estanis Comella, Ibon Rg, Herética(s), DISDIRA DJ.</p>	

Programa	Deskribapena eta parte-hartzaileak	Betetako helburuak
<b>Eusko Jaurlaritzak sustatutako bilduma publiko partekatua</b>	<p>Tabakalerak pandemiaren ondorioei aurre egiteko artelanen erosketarako komite teknikoan parte hartu du azken urteotan, Arte Ederren Bilboko Museoarekin eta Artiurmekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak emandako 200.000 euroko laguntzari esker. 2023an, 18 euskal artista garaikideren 26 artelan erosi zituzten elkarrekin. Horien artean, <i>That Time</i> erakusketaren parte zen Ainara LeGardonen <i>Pausa Pulsar</i> soinu-lana, eta Isabel Hergueraren <i>La gallina ciega</i> ikus-entzunezko arte-lana.</p>	<p>Tabakalera ekoiztutako arte-lanak ondare publikoaren parte bihurtzea.</p> <p>Konfinamenduaren ondorioz arte-sareak dituen zailtasunak arintzea.</p> <p>Bizirik dauden artisten sorkuntza-jarduera sustatzea eta euskal kultura-ondare garaikidea aberastea.</p> <p>Euskadiko arte-sistema osatzen duten galeriekin eta beste eragile batzuekin lan egitea.</p> <p>Euskal artisten profesionalizazioan laguntzea.</p>



JAI. Jardun Artistikoentzako Institutua.



Artista-estudio baten ikuspegia.

## Zinea eta ikus-entzunezkoak

### Ikusmira Berriak



#### Deskribapena eta parte-hartzaileak

Zuzendari berriei eskainia, Zinemaldiarekin eta EQZerekin elkarlanean.

2023ko deialdian 348 eskaera jaso ziren eta sei proiektu aukeratu ziren egonaldirako. 2023an honako zinegile hauek osatu zuten Tabakalerako egonaldia:

- David Pérez Sañudo (*La última noche de un Erasmus en Roma*)
- Hikaru Uwagawa (*Ulysses*)
- Maddi Barber (*Claros de Bosque*)
- María Alché (*Hoy te amo y todo es hermoso*)
- Naomi Pacifique (*After the night, the night*)
- Sameh Alaa (*When I Close My Eyes I See Your Eyes*)

2023ko amaieran ebatzi zen deialdian (2024ko egonaldietarako) 362 eskaera jaso ziren.

#### Betetako helburu estrategikoak

Berrikuntza eta esperimazioaren alde egiten duten ikus-entzunezko proiektuak garatzen laguntzea.

Zine arloko sortzaileen profesionalizazioan laguntzea eta ikus-entzunezko sormena bultzatzea, formakuntzarako eta ekoizpenerako laguntzen bitartez.

Dagoeneko proiektu honen emaitzak aurki ditzakegu zinema arloan:

2020ko Ikusmira berriak deialdian parte hartu zuen Jaione Camborda zinegileak 2023ko Zinemaldian urrezko maskorra eskuratu zuen, *O corno* lanarekin.

2019ko Ikusmira berriak aukeraketan parte hartu zuen Alberto Martín Menachok, berriz, Zabaltegi-Tabakalera sailean hartu zuen parte *Antier noche* filmarekin.

2023an Quinzaine des Cinéastas-ek Elena Martín Gimenoaren *Creatura* filma programatu zuen, eta Europa Cinemas Label-ekin saritu zuten. Elena Martín Gimeno 2020an hartu zuen parte Ikusmira berriak-en, *Creatura* proiektuarekin.

2019ko Ikusmira berriak egonaldian parte hartu zuen Raven Jacksonen *All Dirt Roads Taste of Salt* filma Sundancen estreinatu zen 2023an. Signis saria eskuratu zuen eta Donostia Zinemaldian RTVE-Otra Mirada saria.

### Noka Emakume zuzendariei eskainitako programa, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean



#### Deskribapena eta parte-hartzaileak

Euskal Herriko emakume zuzendari hasiberrien film luzeen proiektuak tutorizatu, lagundu eta akonpainatzea helburu duen programa. 2023an honako profesional hauek izan ziren tutoreak: **Celia Rico, Maider Oleaga eta Diana Toucedo**. Eta gonbidatutako profesional moduan hauek igaro ziren: **Estibaliz Urresola eta Vanesa Fernández Guerra**.

2023an hautatuko zuzendariak:

- Nerea Castro (*Los nidos*)
- Mikele Landa (*Senda*)
- Joana Moya (*Hierro*)

#### Betetako helburu estrategikoak

Zine arloko sortzaileen profesionalizazioan laguntzea.

Euskal emakume zinegileen ikusgarritasuna handitzea.

Filmaren sorkuntza-prozesua fase guztietan laguntzea, eta hautatuko proiektuak Ikusmira berriak deialdian edo beste laborategi eta diru laguntzetan parte hartzeko ahalik eta ondoen prestatzea.

Estibaliz Urresola 2019an hasi zen, NOKA ekimenean, bere *20.000 especies de abejas* proiektuarekin; 2023ko Berlinaleko sail ofizialean parte hartu zuen, eta aktore oneraren saria irabazi zuen Sofia Otero protagonistak. Urte osoan zehar hainbat zinemalditan parte hartu du eta hainbat sari jaso ditu nazioartean. 2024 urteko Goya sarietan 15 izendapen jaso zituen, eta Zuzendari berri onenaren saria, jatorrizko gidoi onenaren saria eta taldeko emakumezko aktorerik onenaren saria eskuratu zituen.

Programa	Deskribapena eta parte-hartzaileak	Betetako helburu estrategikoak
Zabaltegi-Tabakalera saria	20.000 €-ko saria film irabazlearentzat. Horietatik 6.000 € film irabazlearen zuzendariak jasotzen ditu, eta gainerako 14.000 €, berriz, film irabazlea Espainian banatzen duen enpresak.  <u>2023ko sariak</u> <i>Zabaltegi-Tabakalera saria</i> <b>THE HUMAN SURGE 3</b> Eduardo Williams (Argentina)  <i>Aipamen berezia</i> <b>EL JUICIO</b> Ulises de la Orden (Argentina)	Donostia Zinemaldiarekin elkarlana.  Begirada eta molde berriak bilatzen dituen zinemarentzat leku bat eskaintzea.  Esperimentazioa sustatu eta saritzea.

Programa	Deskribapena eta parte-hartzaileak	Betetako helburu estrategikoak
<b>NEST</b>	<p>13 film labur hautatu ziren 350 lanen artean.</p> <p><i>Nest saria</i></p> <p><b>AMMA KI KATHA</b> Nehal Vyas (India)</p> <p><i>Nest aipamen berezia</i></p> <p><b>ENTRE LES AUTRES</b> Marie Falys (Belgika)</p>	<p>Donostia Zinemaldiarekin elkarlana.</p> <p>Nazioarteko sareak indartzea eta horien parte izatea.</p> <p>Tokiko eta nazioarteko talentua ikusaraztea.</p>
<b>2de0 Serieak</b>	<p>2de0 serieak Tabakalerako ikus-entzunezko laborategiak sustatutako programa bat da, telesailen sortzaileen (ekoizleak eta gidoiariak) proiektuak tutoretzan hartzeko eta babesteko.</p> <p>2023an proiektuen jarraipena egin zuten mentoreak honako hauek izan ziren:</p> <p><b>Koldo Almandoz, Marian Fernández, Laura Sarmiento eta Anna R. Costa.</b></p> <p>59 proiektu aurkeztu ziren eta horietatik hiru aukeratu ziren egonaldian parte hartzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Eutsi goiari!</i> (Ainhoa Artetxe)</li> <li>• <i>Lonely People, Neon Cities</i> (Mónica Arnanz eta Sergio García-Ramos)</li> <li>• <i>Egia</i> (Xabier Ojinaga Juárez)</li> </ul>	<p>Ikus-entzunezko arloko ekimen eta proiektu berritzaileak sustatzea.</p>

<b>2de0 deialdi iraunkorra- Espazio eta baliabideen lagapena</b>	<p>Euskal ikus-entzunezko sorkuntza sustatzeko helburuarekin, Tabakalerako ikus-entzunezko laborategiak hainbat baliabide jartzen ditu sortzaileen eskura euren proiektuen garapen fase desberdinetan laguntzeko.</p> <p>Sortzaileak:</p> <p>Ainhoa Gutiérrez, María Patrão, Diana Castro, Anna de Guía-Eriksson, Ricardo Ruales, Julen Etxebarria, Daniela Delgado, Tatjana Honegger, Rafael Manuel, Naomi Pacifique, Cristina Neira, Marina Lameiro, Malen Nicholsson Gorostiaga, Lorena García, Izaro Retegi, Maddi Lopez de Arkaute, Paloma Hernández, Nadia Olvera, Lucía Montero, Nicolás Auger, Gerard Borràs, Natalia García Clark, Joan Pàmies, Pablo Boido, Jessica Sarah Rinland, Amaia Badiola, Unai Ruiz, Maite Alonso, Renata Etanowski, Catalina Giordano, Astrid Villanueva, Flor Clérico, Veronica Boggio, Louise Martin-Papasian, Maria Inês Gonçalves, Nicolás Turjanski, Susana San José Aullet, Inés Cámara, Ainhoa Gutiérrez, Marina Palacio, Imanol G. Gurrutxaga, Lucía Dellacha, Inés Vázquez, Alejo Duclos, Laura Alhach, Celeste Rojas, Shira Hochman, Maru Solares, Kote Camacho, Adrián Cores, Paolo Tizón, Depeng Yu, Julen Gorosabel, Iñaki Ortega, Marcos García, Garazi Karrera, Alex del Río, María Arizmendi, Ana Villar, Laura Alhach, Isabel Herguera, Karmele Ustarroz, Pablo Boido, Sara Delgado, Asier Olaizola, Inés Calero, Izaro Retegi, Clara Rus, Iñaki Luis Fajardo, Mario Sanz, Mayra Morán, Elena Gonsálvez.</p>	<p>Euskarazko eduki berritzaileak sortzen dituzten gazteen ikus-entzunezko proiektuak babestea.</p> <p>Talentu gaztea aurkitzea.</p> <p>Askotariko gaiak jorratzen dituzten euskarazko eduki berritzaileen sorkuntza bultzatzea.</p> <p>Euskarri ezberdinak sustatzea eta zabalkunderako tresna berriei baliatzea.</p>
--	--	--

Programa	Deskribapena eta parte-hartzaileak	Betetako helburu estrategikoak
<b>Formakuntza programa, Media eta Tabakalerak elkarlanean</b>	<p>Media Euskadi eta Tabakaleraren arteko lankidetzak ikus-entzunezkoen arloko profesionalentzat goi mailako formakuntzak eskaintzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gonbidatuak: Miguel Machasiki (guidoia), Alvaro Vega (pitching-a), Alba Sotorra (Korproduzio lantegia).</li> <li>• Parte hartu duten proiektuak: <i>Las ciegas hormigas</i> (Lamia ekoizpenak), <i>Caro Bastiano</i> (Garabi Films), <i>Perla</i> (Bixagu), <i>Kresala</i> (En buen sitio), <i>Ikusezinak</i> (Lotura), <i>La pérdida de la magia</i> (Limbus Filmak), <i>Bide guztiak</i> (PIMPI&amp;NELLA), <i>Zikuñagako ama</i> (Zazpi t'ardi), <i>Azken agurra</i> (Txintxua Films).</li> </ul>	<p>Proiektuen garapena eta nazioartekotzea laguntzeko baliabideak eskaintzea.</p>
<b>Audiogile berriak deialdia</b>	<p>Euskarazko soinu fikzioko garapenerako deialdia, EITB eta Tabakalerak elkarlanean antolatua.</p>	<p>Euskal sortzaileei laguntzea, eta euskaraz egindako soinu fikzioa sustatzea.</p>

## 2deoko programa publikoa

Proiektua	Deskribapena eta eragileak	Helburu estrategikoak
<i>Txoria txori aurkezpena</i>	2deon garatutako lanaren aurkezpena: Txoria txori abestiaren adaptazioa BRAVAren (Sara Delgado) eskutik, Txapuza animatzailearekin, eta sorkuntza prozesuari buruzko hizketaldia.	Ikus-entzunezko arloan euskarazko eskaintza ugartu eta proposamen berritzaileak sustatzea.
<b>Kontatutako Telesaila: Autodefensa</b>	2deo serieak deialdiari hasiera emanaz, Berta Prieto, telesailaren sortzaile eta protagonisteetako batek, eta Jaume Ripoll, Filminen sortzaileetako batek, urteko telesailaren intrahistoria kontatu zuten.	Sortzaile berriei baliabideak eta ikusgarritasuna eskaintzea.
<b>2deo topagunea</b>	Zinemaldiaren baitan egindako ekimena 2deo ikus-entzunezko laborategian. Zinemagileak, zineko industriako profesionalak eta kazetariak, eta Zinemaldiak eta Tabakalerak elkarrekin bultzatutako programetan parte hartzen zuten sortzaileak hartu zituen 2deo topaguneak.	2deo euskarazko ikus-entzunezkoen sorkuntzarako erreferentziako topaleku bihurtzeko bidean aurrerapausoa ematea.
<b>KABIA</b>	Zinemaldiaren baitan egungo eta etorkizuneko ikus-entzunezko zuzendarientzako antolatutako ekimena, sortzen ari den talentu zinematografikoari eskainia.  Nest saileko, Ikusmira berriak egonaldietako eta proiektuen garapenerako programako egoiliarrek eta Tabakalerako eraikineko komunitateak elkartu zituen, ideiak trukatu eta proiektuak partekatuzko.	
<b>2deotik Zinemaldira</b>	Laborategian lanean aritzen diren egoiliarrek eta sareetan ezagunak diren eduki digitaletako sortzaile gazteek osatutako talde batek Donostia Zinemaldia barrutik jarraitu zuen, bigarren urtez, sare sozialen bidez, euskaraz eta formatu eta eduki digital berriak erabiliz, Tabakalerak EiTBrekin batera egindako elkarlanari esker.	
<b>Memoria lotsagabeak</b>	Euskal Herriko adineko helduen esperientziak biltzen dituen queer ikus-entzunezko artxibo baten sorkuntzari buruzko topaketa.	

## Artea-zientzia-teknologia-gizartea

Proiektua	Artistak/eragileak eta deskribapena	Lorpen estrategikoak
<i>Máquinas de ingenio. Jakintzen bidegurutzearako erakusketarako garatutako proiektuak</i>	Lankidetzan garatutako proiektuak artisten eta zientzia eta teknologiako enpresa/zentroen artean. CIRCE proiektuaren baitan garatutako proiektuak:  <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Exografías</i>. Amaia Vicente, Gogoia eta Teknikerrekin lankidetzan.</li> <li>• <i>C. El punto justo del conflicto cognitivo</i>. Laura MM, Basque Center on Cognition, Brain and Language-kin (BCBL) lankidetzan.</li> <li>• <i>Sugar Detox Clinic</i>. Elsa Yranzo, Basque Culinary Centerrekin (BCC Innovation) lankidetzan.</li> <li>• <i>Compost Computacional</i>. Marina Otero Verzier, Donostia International Physics Centerrekin (DIPC) lankidetzan.</li> </ul>	Kolaborazioak tokiko eta nazioarteko arte, zientzia eta teknologia zentroekin. Zentro horietan garatzen diren ikerketak erdigunera eraman eta gizarteratzea.  Diziplina arteko esperimazioan diharduten artistak babestea.  Arte-zientzia-teknologia lerroa sendotzen jarraitzea, eta European Tabakalerak erreferentziako zentro gisa lortutako tokia egonkortzea.
<b>Immaterial. Sorkuntza proiektu digitalak garatzeko deialdia</b>	3D sorkuntza, digital art, virtual art, eta errealtate birtual eta areagotuaren alorretan garatzen duten eduki sortzaileen lana eta formatu digital berriak babesteko asmoarekin sortutako egonaldi-deialdia. 3 sortzailearen proiektuak aukeratu ziren 2023an: <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Ruins From The Future</i>. Lola Zoido.</li> <li>• <i>Cuidado con los chicos que teclean UWU</i>. Laura Tabarés.</li> <li>• <i>Pan y circo</i>. Jorge Isla.</li> </ul>	EAEn gizarte-berrikuntzako laborategi gisa kokatzeko, eta kulturaren ekonomian eraginez, artistentzako aukera berriak sortzeko bidean lan egitea.
<b>SummerLab</b>	Lankidetzan sustatzea helburu duen topagunea da, eta hainbat gairen inguruko eztabaida eta sorkuntza sustatzea ditu helburu, hala nola pentsamendu kritikoa, tekno-aniztasuna, kultura post digitala, herritar berrikuntza edo ikasketa modu kooperatiboak.  2023ko topaketak lotura zuzena izan zuen udazkenean aurkeztu zen <i>Máquinas de ingenio. Jakintzen bidegurutzearako</i> erakusketarako garatzen ari ziren proiektuekin.  Parte-hartzaileak: Food Fictions- Food Hack Lab, Elsa Yranzo. IA x NIT Bci - neurociencia abierta- NIT Bci, Manuela Ruzzolli, Egoitz Aulestia, Laura MM. ALMALAB- Victoria Ascaso.	



Proiektua	Artistak/eragileak eta deskribapena
<b>Gradients</b>	<p>Playmodes kolektiboaren eta Irma Vilà Òdena komisarioaren lana.</p> <p>Kursaaleko fatxadarako site-specific ikus-entzunezko lana, kode sortzaileen, algoritmoen eta sorkuntza-prozesuen bidez garatua.</p> <p>Irekiak Gallery Weekend ekimenaren barruan aurkeztu zen, Tabakalerak, Donostiako udalak eta Kurtaal-ek aurreko urteetan abiatutako elkarlanaren jarraipen gisa.</p>
<b>Summer Sessions</b>	<p>Artista eta diseinatzaile gazteei zuzenduriko nazioarteko arte eta teknologia egonaldi-deialdi bat da. Mundu osoko kultura-erakundeen sare batek babesten eta hartzen ditu egonaldi hauek, sareko eragileen artean proiektuen arteko elkarlana eta trukaketa proposatuz. Medialab Tabakalerak sortzaile bat edo batzuk hartzen ditu urtero udan, zortzi astetako egonaldi bat egin dezaten.</p> <p>2023an Siyu Liu sortzaileak egin zuen egonaldia Medialaben, <i>Mountain and Spring</i> izeneko proiektua lantzeko.</p>



SummerLab.



Gradients-Inaugurazioa.

# PUBLIKO OROKORRARENTZAKO ESKAINTZA

## Arte-erakusketak

Data eta izenburua	Parte-hartzaileak	Lorpen estrategikoak
2022ko uztailak 9 - 2023ko urtarrilak 8  <b>Vive le cinéma!</b>  Bisitariak: 22.346	Dea Kulumbegashvili, Lemohang Jeremiah Mosese, Isaki Lacuesta eta Jia Zhang-ke.  Ekoizleak: Amsterdameko Eye Film Museum eta Tabakaleraren arteko ekoizpena, Donostia Zinemaldiaren eta Rotterdameko Zinemaldiarekin lankidetzan.	Nazioartean erreferentzialtasuna lortzea zinea eta artearen gurutzatzea sustatzen duen esparruan.  Donostia Zinemaldiarekin elkarlana sakontzea zinea eta artearen esparruan.  Eye Film Museum-ekin eta Rotterdameko Zinemaldiarekin elkarlan-esparrua irekitzea.  Lankidetzatza horri esker, mostra honetarako Dea Kulumbegashvili sortutako <i>Captives</i> lana Rotterdamgo Zinemaldiko Art Directions programan aurkeztu zen.
2023ko urtarrilak 28 - 2023ko ekainak 4  <b>Evil Eye - Optikaren eta balistikaren historia paraleloa</b>  Bisitariak: 16.972	Haig Aivazian, Zach Blas, Pauline Curnier Jardin, Ho Rui An, Izaro Iregi González, Rajkamal Kahlon, Kiluanji Kia Henda, Kapwani Kiwanga, Prabhakar Pachpute, Miranda Pennell, Natascha Sadr Haghighian eta Azucena Vieites.  Komisarioak: Ana Teixeira Pinto eta Oier Etxeberria Bereziartua, Germán Labrador-ekin lankidetzan.	Tabakalerak sorkuntza sustatzeko zentro gisa duen izaera ikusaraztea, obra berrien ekoizpena sustatuz.  Bertako artisten ikusgarritasuna handitzea.  MNCARS bezalako erreferentzialtasuko erakunde batekin lankidetzatza sendotzea.
2023ko otsailak 9 -2023ko apirilak 16  <b>Batzuk</b>  Bisitariak: 7.176	Mar de Dios  Komisarioa: Ane Lekuona	Tabakalerak sorkuntza sustatzeko zentro gisa duen izaera ikusaraztea.  Bertako artisten profesionalizazio-prozesuan laguntzea eta beren ikusgarritasuna handitzea.

Data eta izenburua	Parte-hartzaileak	Lorpen estrategikoak
2023ko apirilak 28 - 2023ko abuztuak 27  <b>Situ-akzioak. Priscila Fernandes</b>  Bisitariak: 24.776	Priscila Fernandes artistak <i>Zaldiek amesten dutena</i> izeneko erakusketa garatu zuen Situ-akzioak-en edizio berrirako, eta artearen bidez jolasteko, zentzumenak aktibatzeke, ikasteko eta esperimendatzeko gune bat proposatu zuen.	Haurrei eta familiei artearekin eta esperimendazioarekin lotutako proposamenak eskaintzea.  Prozesu parte hartzaileak sustatzea haurrekin eta familiekin.
2023ko ekainak 23 - 2023ko azaroak 5  <b>That Time. Arte Ederren Bilboko Museoa - Tabakalera</b>  Bisitariak: 41.107	80 artistaren 107 lan. Horien artean, Arte Ederren Bilboko Museoko bildumatik ekarritako Francis Bacon, Fernand Léger, El Greco, Zurbarán, Vicente Ameztoy, Idoia Montón, Nemesio Mogrobojo, Elena Asins, Remigio Mendiburu eta Miren Arenzanaren lanak eta, horiekin batera, Tabakalerak bultzatutako sorkuntza berriak aurkeztu ziren: Ainara LeGardonen <i>Pausa Pulsar</i> (hain justu, Eusko Jaurlaritzaren Bilduma Partekaturako erosi zen artelanetako bat izan zen), Ilke Gersen <i>The Same Ground</i> eta Jorge Moneoren <i>Exergo</i> . Komisarioak: Miriam Alzuri eta Oier Etxeberria.	Tabakalerak sorkuntza sustatzeko zentro gisa duen izaera ikusaraztea, obra berrien ekoizpena sustatuz.  Bertako artisten ikusgarritasuna handitzea.  Arte Ederren Bilboko Museoa bezalako erreferentzialtasuko erakunde batekin lankidetzatza sortzea.  Arte garaikideko proposamenak publiko orokorrari gerturatzeko asmoan aurrerapauso nabarmena ematea.
2023ko irailak 15 - 2024ko urtarrilak 7  <b>El sueño de la sultana</b>  Bisitariak: 17.557	Isabel Herguera.	Tabakalerak sorkuntza sustatzeko zentro gisa duen izaera ikusaraztea.  Bertako artistei ikusgarritasuna eskaintzea.  Artea eta zinearen gurutzatzea eta esparru horretan erreferentzialtasuna lortzea.  Zinemaldiarekin bat eginez, zinearen eremura gerturatzen diren erakusketak proposatzea.
2022ko uztailak 9 - 2023ko urtarrilak 8  <b>Máquinas de ingenio. Jakintzen bidegurutzearan</b>  Erakusketaren kopuru totala: 23.092	Artistak: Laura MM, Marina Otero Verzier, Claudia Paredes Intrago, Quadrature, Amaia Vicente, Elsa Yranzo.  Enpresa zientifiko-teknologikoak: Donostia International Physics Center, Tekniker, Basque Center on Cognition, Brain and Language, Basque Culinary Center.  Komisarioa: María Ptqk.	Artea, zientzia, teknologia eta gizartearen eremuan Tabakalerak lortu duen erreferentzialtasuna egonkortzea.  Tabakalera Creative Impact Research Centre Europe (CIRCE) programaren parte izanda, eta Alemaniako Gobernuak kultura- eta sorkuntza-sektoreko politiken ikerketarako zentro-laborategi izateko hautatua izan ostean, urtean zehar landutako elkarlan proiektuak gizarteratzea.  Arteak eta sorkuntzak zientzia eta teknologiaren esparruan egin dezaketen ekarpenen urratsak emateko aukera sortzea.



That time. Arte Ederren Bilboko Museoa - Tabakalera erakusketa.



El sueño de la sultana erakusketa.



Máquinas de ingenio. Jakintzen bidegurutzean erakusketa.

## Esku-hartzeak

Data eta izenburua	Parte-hartzaileak	Lorpen estrategikoak
2022ko azaroak 10 - 2023ko otsailak 26	Ragnhild May.	Artea Tabakalerako espazio publikora atera eta eskuragarriagoa egitea.  Soinu-arteari erakusleho finko bat eskaintzea eraikinean.
<b>SCALA:</b> <i>Kritika instituzionala haurtzaindegirako</i>		
2023ko apirilak 4 - 2023ko ekainak 26	Juan José Aranguren eta Andrés Doñate.	
<b>SCALA:</b> <i>El espacio del tiempo (Denboraren espazioa)</i>		
2023ko uztailak 13 - 2023ko urriak 22	crys cole.	
<b>SCALA:</b> <i>Making conversation. crys cole</i>		
2023ko azaroak 29 - 2024ko martxoak 3	Txaranga Urretabizkaia taldea.	
<b>SCALA:</b> <i>Zortzia etzan. Txaranga Urretabizkaia</i>		
2023ko ekainak 9 - 2023ko uztailak 31	Nagore Legarreta argazkilaria eta Harrotu ileak proiektuan parte hartzen duten gazteak.	Arteak eta sorkuntzak eraldaketa sozialerako eta integrazioerako tresna gisa duten balioa azpimarratzea.  Tabakaleran funtsezkoa den bitartekaritza lana ezagutaraztea.  Erakusketa- eta sorkuntza-proiektuak erakusketa aretoetatik kanpo atera eta publiko orokorrarengana gerturatzea.
<b>Ireki, elkartu, eraiki. Hurbiltzeak eragin egiten digu</b>		

## Programa Publikoak

Data eta izenburua	Parte-hartzaileak	Lorpen estrategikoak
<p><b>Musika Dena eta Eszena Festibala</b> 2023ko uztaillak 13 - 15</p>	<p>crys cole eta Oier Etxeberriaren arteko elkarrizketa, <i>Making conversation</i> piezaren inguruan.</p> <p>Instalazioaren Irekiera: Eman Eman_Dar Dar - Tremolatore Alex Mendizabal.</p> <p>Éliane Radigue-ren piezari eskainitako organo kontzertua: Occam XXV. Frédéric Blondy.</p> <p>Familientzako lantegia eta kontzertua: Hackear cassettes: una guía sobre la manipulación de cintas magnéticas para musicXs intrepidXs.</p> <p>Instalazio-kontzertua: Giraria. Alex Mendizabal eta Amelia Cuni.</p> <p>Kontzertuak: Debris Stevenson, crys cole &amp; Oren Ambarchi eta Kamilya Jubran &amp; Werner Hasler</p>	<p>Askotariko proposamenak gurutzatuz, artea eta musika gizartearen ezagutza kritikorako ezinbesteko elementuak direla aldarrikatzea.</p>
<p><b>Arte Makina</b></p>	<p>Arte garaikidera gerturatzeko ikastaroa, erakusketa bakoitzari lotuta, eta saio bakoitza gonbidatu berezi batek gidatuta. 2023an erakusketa aretotik igarotako gonbidatuak:</p> <p><i>Evil Eye</i> erakusketa: Mikel Alberdi Sagardia, Kimia Kamvari, Martín Etxauri Sainz de Murieta, Leire Vergara.</p> <p><i>That Time</i> erakusketa: Miriam Alzuri, Susana Talayero, Leire Aranberri, Ane Lekuona, Juan Pablo Huércanos.</p> <p><i>Máquinas de ingenio. Jakintzen bidegurutzean:</i> David Pello, Arrate Hidalgo.</p>	<p>Edukien irisgarritasuna lantzea eta publiko mota guztietara heltzea.</p>

Data eta izenburua	Parte-hartzaileak	Lorpen estrategikoak
<p><b>Evil Eye erakusketaren programa publikoa</b></p>	<p><b>Evil Eye zine zikloa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Images of world and the inscription of war</i>, Harun Farocki, Alemania, 1989, 75'</li> <li>• <i>The fall of a hero</i>, Hasan ózgür Top, Turkia, 2020, 15' Aurkezpena: Mikel Otxoteko.</li> <li>• <i>Why Colonel Bunny Was Killed</i>, Miranda Pennell, Erresuma Batua, 2010, 28'</li> <li>• <i>Strange Object</i>, Miranda Pennell, Erresuma Batua, 2020, 15'</li> <li>• <i>Trouble (work in progress)</i>, Miranda Pennell, Erresuma Batua, 2023, 30' Aurkezpena: Miranda Pennell.</li> <li>• <i>Triple chaser, Forensic architecture</i>, Erresuma Batua, 2019, 10'</li> <li>• <i>Shipwreck at the Threshold of Europe</i>, Lesvos, Aegean Sea, 28 October 2015.</li> <li>• <i>Forensic architecture</i>, Erresuma Batua, 2020, 23' Aurkezpena: Ibon Salaberria eta Ula Iruretagoiena.</li> </ul> <p><b>Gerraren begia topaketa</b> Fernando Esposito, Jaume Navarro, Ana Teixeira Pinto.</p> <p><b>Gerraren begia II hitzaldia</b> Olatz Gonzalez Abrisketa, Ignacio Mendiola, Joseba Zulaika.</p> <p><b>Performance zikloa</b> <i>Conjugate one to each other</i>. Izaro Ieregi Chapter I (Failure), Chapter II (Shame), Chapter III (Lave) Parte hartzaileak: Izaro Ieregi, Camilo Tonón, Ane Zelaia, Akane Saraiva, Jone Laspiur, Andoni de la Cruz, Alba Fernández, Iratxe Bilbao.</p> <p><b>Factory Film hitzaldi performatiboa</b> Ho Rui An.</p>	<p>Erakusketek proposatzen dituzten edukiei beste ikuspegi batzuetatik begiratzea.</p> <p>Erakusketek proposatzen dituzten gaien inguruko gogoeta sustatzea, eta publikoarekiko zubi berriak eraikitzea.</p>



Data eta izenburua	Parte-hartzaileak	Lorpen estrategikoak
<b><i>That Time</i> erakusketaren programa publikoa</b>	<p><b>Poner la mano en el tiempo</b> Hitzaldi bikoitza eta topaketa-tailerra. Andrea Soto Calderón, Michael Marder.</p> <p><i>Eso esku-hartze koreografikoa</i>, Blanca Arrietaren eskutik.</p>	<p>Erakusketek proposatzen dituzten edukiei beste ikuspegi batzuetatik begiratzea.</p> <p>Erakusketek proposatzen dituzten gaien inguruko gogoeta sustatzea, eta publikoarekiko zubi berriak eraikitzea.</p>
<b><i>El sueño de la sultana</i> erakusketaren programa publikoa</b>	<p><b>Proiektzio saioa: “El sueño de la sultana”-rekin elkarrizketak.</b> Begoña Vicario, Izibene Oñederra.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Kutxa Beltza</i>, Isabel Herguera, Izibene Oñederra, Espainia, 2016, 7' Beti bezperako koplak, Ageda kopla taldea, Espainia, 2016, 6'</li> <li>• <i>Spain loves you</i>, Isabel Herguera, Espainia, 1988, 6'</li> <li>• <i>La gallina ciega</i>, Isabel Herguera, Espainia, 2008, 8'</li> <li>• <i>Bajo la almohada</i>, Isabel Herguera, Espainia, 2012, 9'</li> <li>• <i>Ámár</i>, Isabel Herguera, Espainia, 2010, 9'</li> <li>• <i>Amore d'inverno</i>, Isabel Herguera, Espainia, 2015, 5'</li> </ul>	



Conjugate one to each other performancea. Izaro Ieregi.



Musika dena eta ez dena festibala. crys cole & Oren Ambarchi.



Arte-makina. *Evil Eye*. Kimia Kamvari.

## Topaketak

### Immaterial. Errealitate digitalak

Maiatzak 13

#### Deskribapena eta parte-hartzaileak

Errealitate digitalaren inguruko topaketa esperimentalak. Espazio birtualen eta horiek dituzten logiken inguruko topaketa proposatzen du, gizarte harremanetarako, praktika kulturalerako eta esperimentazio artistikorako gune diren heinean. 2023an adimen artifizialean jarri zuen arreta.

Gorka Julio, Jule Goikoetxea, Ekaitz Cancela, VR-Kommand, David Quiles Guillo, Ontologías Feministas, Martin Etxauri Sainz de Murieta, Mayte Gómez Molina, Inés García Azpiazu, Carlos Alcántara Sanchez, Marta Peirano, Jorge Isla, Claudix Vanesix, Laura Tabarés, Lola Zoido, Laura MM, Xabier Landabidea, Pedro Harres, Lorena García, AWWZ, Maria D. Moreno, Aiora Mujika, Leire Palacios.

Topaketaz gain, deialdi bat ere zabaldu zen arte-pieza digital bat garatzeko.

#### Lorpen estrategikoak

Sorkuntza eta teknologia arloarekin interesa duen publiko segmentu berrietara heltzea.

Mundu birtualak geroz eta pisu handiagoa duen gizartean sorkuntza eta pentsamendu kritikoa sustatzea.

Erreferentziazko komunitateak inplikatzeko, lurralde digitaletan esperimentazio artistiko eta praktika kulturalerako gune bat sortzeko.



Data eta izenburua	Parte-hartzaileak	Lorpen estrategikoak
<p><b>Eremuak jardunaldiak</b></p> <p><i>Down with the Scene Kid 606</i></p> <p>2023ko urriak 27 eta 28</p>	<p>Testuinguru artistiko hurbilari «pultsoa hartzea» helburu hartuta antolatzen diren jardunaldiak. 2023an nazioartekoak izan ziren, eta nazioarteko, estatuko zein tokiko artistak eta beste eragile batzuk parte hartu zuten.</p>	<p>Sorkuntza bultzatzeko baliabide gisa, artistentzako eta sortzaileentzako plataforma bat eskaintzea, eztabaidarako eta topaketarako giroa sortzea, eta errealitate artistiko garaikidearen behatoki gisa funtzionatuko duen lantoki bat gaitzea.</p>

### Ate irekiak

2023ko abenduak 15 eta 16



#### Deskribapena eta parte-hartzaileak

Sorkuntzaren ildoan Tabakalerak egiten duen lana eta sortzaileentzako egiten duen eskaintza erakusteko, ate irekien egun handi bat antolatu zen abenduan.

Alde batetik, Artisten gunean eta 2deon lanean ari diren artista egoiliarren lana ezagutarazi zen.

Bestetik, “egitearen” kulturari buruzko Eginzaleak topagunea antolatu zen, dinamika kolaboratiboen, kultura digitalaren eta praktika irekien inguruko proiektuak lantzeko sortua. Medialaben egindako lanaren erakusleihoa ere bada Eginzaleak, eta antzeko logikak darabiltzaten beste egitasmo eta eragile batzuk ere gonbidatzen dira topaketara.

2023an jasagarritasunaren eta berrerabileraren ildo nagusia mantendu zuen, arteari eta ehungintzari bereziki so eginez. Ildo horretan, Betile Crocanti izenarekin 2023an abiarazitako ekimenaren erakustaldia ere egin zen, jasagarritasunari buruzko gogoeta sortu eta gizarteko ohituren eta ekoizpenen moduen inguruan hausnartzeko.

#### Lorpen estrategikoak

Artisten gunean lanean diharduten sortzaileen lana gizarteratzea.

Tabakaleraren jardunean funtsezkoa den eta herritarrentzat itxita egon ohi den eremuaren ateak zabaldu eta lan arlo horri protagonismoa ematea.

Tabakalerak sorkuntza sustatzeko daukan eskaintza ikustaraztea.



## Zinea eta ikus-entzunezkoak

Zentroko pantaila partekatuan ohiko programazioa mantendu zuten erakunde programatzaileek: Euskadiko Filmategia, Donostia Zinemaldia, Donostia Kultura, Elías Querejeta Zine Eskola eta Tabakalera. Tabakalerako pantaila partekatutako zine programa paregabea proposatzen du, historia eta bere klasikoak eta zine garaikidea naturaltasun osoz elkartu eta etengabeko elkarrizketan jartzen dituena. Halaber, zinea egiteko prozesuei ere arreta jartzen diegu eta horiek gizarteratzeko lan egiten dugu.

### Pantaila partekatuaren zikloak

- Cecilia Bartolomé (102 ikusle/1 saio)
- Dantz (32 ikusle/1 saio)
- Dock of the bay (130 ikusle/3 saio)
- Ekarrizketak: El sueño de la sultanarekin (47 ikusle/ 1saio)
- Euskal emakume zinemagileak III (1.112 ikusle/10 saio)
- Erroretik (28 ikusle/1 saio)
- Evil Eye zine-zikloa (95 ikusle / 3 saio)
- ExÓrbita (435 ikusle / 6 saio)
- Giza Eskubideen zinemaldia (255 ikusle/3 saio)
- Gutun zuriak (366 ikusle / 5 saio)
- Hasieratik. Zinema feministaren historiak (270 ikusle / 8 saio)
- Ikusmira berriak (54 ikusle/1 saio)
- Jatorrizko soinu banda (250 ikusle / 2 saio)
- Jazzinema (446 ikusle / 4 saio)
- Kameleoia gara! (364 ikusle / 5 saio)
- Kontatutako zinea (1.262 ikusle / 10 saio)
- Kearen artxibogileak (304 ikusle / 2 saio)
- Liburutegiaren eguna (49 ikusle/1 saio)
- Lumière emanaldiak (1.174 ikusle/ 10 saio)
- Matias Piñeiro (194 ikusle / 4 saio)
- Mia Hansen-Løve (819 ikusle / 8 saio)
- NEST (959 ikusle / 7 saio)
- Nosferatu: Frantziako polarra (2.956 ikusle / 32 saio)
- Ruth Beckermann (252 ikusle / 14 saio)
- Zabaltegi-Tabakalera (2.856 ikusle/ 19 saio)
- Zine garaikidea (468 ikusle/ 6 saio)
- Zinearen historia etengabea (418 ikusle/ 5 saio)
- Zinema eta zientzia (2146 ikusle/10 saio)
- Zinemaldia + PLUS (674 ikusle/ 11 saio)
- Zinemaraaaa (1.300 ikusle / 6 saio)

## Zine-proiektuak

Proiektua	Deskribapena eta eragileak	Helburu estrategikoak
<b>ExÓrbita</b> Zinema, gorputzak eta espazio liminalak Apirilak 19-22	Elías Querejeta Zine Eskolak eta Tabakalerak elkarlanean antolatutako programa. Ikusleak zinera gonbidatzen zituen, begiradarekin ez ezik gorputzarekin ere gerturatu zitezten.	Proposamen pedagogiko baten bidez, zinemara gerturatzeko bide esperimentalak jorratzea eta praktikara eramatea, zinea bera pantailatik harago eramanez.
<b>Kontatutako zinea</b>  Ikusleak: 1.262	2023an ondorengo zinegileek azaldu zituzten euren film-proiektuen xehetasunak Tabakalerako zine-aretoan:  · <i>A los libros y a las mujeres canto</i> . María Elorza. · <i>Irati</i> . Paul Urkijo. · <i>Dardara</i> . Marina Lameiro (Dock of the Bay festivalaren baitan). · <i>20.000 especies de abejas</i> . Estibaliz Urresola. · Ruth Beckermann · Mia Hansen-Løve · Matias Piñeiro · <i>Creatura</i> . Elena Martín Gimeno. · <i>Cerrar los ojos</i> . Michel Gaztambide. · <i>Bidasoa 2018-2023</i> . Fermin Muguruza.	Sorkuntza prozesuak herritarrekin partekatu eta ikusaraztea.  Bertako sektorearekiko gertutasuna lantzea.

### Zinetik igaro diren gonbidatuak:

María Elorza, Mikel Otxoteko, Paul Urkijo, Kokoshca, Miranda Pennell, Carlos Pardo, Ula Iruretagoiena, Ibon Salaberría, Carla Rus, Tamara Lucarini, Andrea Sánchez, César Ustarroz, André Habib, Estibaliz Urresola, Ruth Beckermann, Pedro Costa, Mia Hansen-Løve...



20.000 especies de abejas. Estibaliz Urresola.

## Lankidetzan egindako proiektuak

Programa	Deskribapena eta parte-hartzaileak	Lorpen estrategikoak
<b>Dferia</b> Martxoak 14-15	Donostia Kulturak antolatzen duen antzerki feriarekin lankidetzak. Sektore profesionalari eskainitako Negozio foroa - sektore txokoa antolatu zen bi egunez Tabakaleran.	Ohikoak ez diren beste publiko batzuk erakartzea Tabakalerara.  Tokiko ekitaldi kultural esanguratsuen parte izatea, eta inguruko kultur erakundeekin dauzkagun lankidetzak-sareak indartzea.
<b>Crossover</b> Martxoak 27- Apirilak 2	Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak sustatu eta Kultur Factory kultur agentziaren eta Tabakalerako 2deoren laguntzarekin antolatzen den telesailen kulturari eskainitako jaialdia. 2023an, <i>Autodefensa</i> sortzeko prozesuari buruzko Kontatutako telesaila saioa eskaini zen Tabakalerako 2deon.	Sorkuntza berriak sustatzea.  Sorkuntza garaikidearen eta herritarren artean bitartekaritza lantzea.
<b>Dock of the bay</b> Maiatzak 1-6	Donostiako Musika Dokumentalen Jaialdiaren 16. edizioaren egoitzatako bat izan zen Tabakalera 2023an.	

Programa	Deskribapena eta parte-hartzaileak	Lorpen estrategikoak
<b>Dantz Festibala</b> Abuztuak 22-25	Abangoardiako musika eta musika elektronikoa lantzen duen nazioarteko jaialdia da, eta Tabakaleraren, Donostia Kulturaren eta Kutxa Kulturaren laguntza du. Tabakalera, Illumbe eta Donostiako beste espazio batzuetan egin zen.	Ohikoak ez diren beste publiko batzuk erakartzea Tabakalerara.  Tokiko ekitaldi kultural esanguratsuen parte izatea, eta inguruko kultur erakundeekin dauzkagun lankidetzak-sareak indartzea.
<b>Glad is the Day #7</b> Abuztuak 26-27	Donostia Kulturak Glad is the Day jaialdiaren zazpigarren edizioa antolatu zuen Cristina Enea parkean, eta Tabakalerarekin lankidetzan, beste eragile batzuen artean.  Jaialdi nagusiaren bezperan, emanaldia eskaini zen Tabakalerako kanpoaldean.	Sorkuntza berriak sustatzea.  Sorkuntza garaikidearen eta herritarren artean bitartekaritza lantzea.
<b>Gallery Weekend</b> Irailak 14-17	Donostiako Arte Garaikideko Galerien Elkarrekin (DAGGE), Tabakalerak eta Donostiako Udalak sustatutako ekimenaren hirugarren ekitaldia. Beste zenbait hiritan egiten den ekimenaren eredu jarraituz, hainbat galerietako eta Tabakalerako erakusketen irekiera bateratuak egin ziren berriro ere, arte-sorkuntza herritarrengana gerturatzeko.	

### Tabakalera dantzan

Abuztuak 17 - 22



Eso. Blanca Arrieta.

#### Deskribapena eta parte-hartzaileak

Tabakalera izan zen Musika Hamabostaldiaren 84. edizioan egoitza nagusietako bat 2023an. Laugarren urtez, Tabakalera dantzan zikloa antolatu zen eraikineko hainbat eremutan, dantza garaikidearekin eta mugimenduekin lotutako proposamenei lekua eginaz. Horrez gain, aurrenekoz, sorkuntza egonaldi bat hartu zuen Tabakalerak, Blanca Arrieta koreografoak egindakoa, eta bertako guneekin lotura zuen proiektu bat garatu zuen, *That Time. Arte Ederren Bilboko Museoa - Tabakalera* erakusketatik abiatuta.

- Eso (Blanca Arrieta)
- *Córdoba Drone* (Dani Hernández)
- *Las cosas en la distancia* (Poliana Lina)
- *The Palm of Your Hand* (Vera Thussing)

#### Lorpen estrategikoak

Tokiko ekitaldi kultural esanguratsuen parte izatea, eta inguruko kultur erakundeekin dauzkagun lankidetzak-sareak indartzea.

### STROM. Astronomia inklusiboa

2023ko urriak 4 - urriak 21



#### Deskribapena eta parte-hartzaileak

Erakusketa hau Passion for Knowledge jaialdirako ekoizti zuen DIPCK, Tabakalerarekin elkarlanean. Esperientzia interaktibo eta multisentsorialen bidez, astronomiako funtsezko kontzeptuak azaldu eta Euskal Herrian astrofisikaren eremuan egiten den ikerketaren berri ematea zituen helburu, bereziki desgaitasunak dituzten pertsonen sarrera bermatzeko.

#### Lorpen estrategikoak

Hiriko eta lurraldeko ikerketa zentroekin lankidetzak indartzea, eta horietan egiten den lana gizarteratzeko laguntza eskaintzea.

### Feministaldia

Azaroak 27 - Abenduak 2

Kultura Feministaren jaialdiaren antolakuntzan kolaboratzaile izan zen Tabakalera beste urte batez.

Gaurkotasuneko gizarte gaien hausnarketarako eta eztabaidarako topaleku izatea.

## Sorkuntza hiritarra

Programa	Deskribapena	Helburu estrategikoak
<b>Betile Crocanti</b>	Jasangarritasuna, jostuntza eta artea lotzen dituen topagunea da. Espazio kolaboratibo eta esperimental gisa sortu zen 2023an, baztertutako, alboratutako edo erabilitako materialak birmoldatzeko, eraldatzeko, josteko eta larru, hezur eta egitura berrietan bihurtzeko. Helburua gazteei zuzendutako talde ireki bat sortzea da, modu kolektiboan eta jostuntzaren bidez hondakinei eta aparte utzitako elementuei alternatibak bilatzeko.	Sorkuntza- eta teknologia-baliabideak haur, gazte zein helduen eskura jartzea.  Sorkuntza eta aisialdia batzen dituzten harremantzeko topaguneak eskaintzea.
<b>Eta puntu!</b>	Puntua egiten ikasi eta trebatzeko topagunea.	
<b>Xake Mate!</b>	Mahai-jokoen mundu zabala ezagutaraztea helburu duen topagunea.	
<b>Atlas</b>	Autoedizio eta paperaren munduarekin harremana duten teknikak ezagutzeko topaketa.	
<b>Pentsartean</b>	Pentsamendu kritikoaren inguruko irakurketa taldea, Arantza Santestebanek gidatutakoa.	
<b>Medialabeko tresnak</b>	Laborategiko tresneriari buruzko lantegiak.	
<b>Plastiko birziklatuarekin lanean</b>	Precious Plastic talde irekiak bultzaturiko lantegiak plastikoa bildu, birrindu eta moldatuz askotariko elementuak egiteko.	
<b>Lantegi intentsiboak</b>	Egun osoko lantegiak, normalean sortzaile esperimentatu edo adituek gidatuak.	
<b>Udako, neguko eta udaberriko lantegiak</b>	Proposamen programatikoa oporraldietarako jardura eskaintza anitzarekin.	



Betile Crocanti.



Atlas.

## Haurrak eta familiak

Programa	Deskribapena	Helburu estrategikoak
<b>Situ-akzioak. Priscila Fernandes</b>	Priscila Fernandes artistak <i>Zaldiek amesten dutena</i> izeneko erakusketa garatu zuen Situ-akzioak-en edizio berrirako, eta artearen bidez jolasteko, zentzumenak aktibatuzko, ikasteko eta esperimentatzeko gune bat proposatu zuen.	Haur eta familiei artearekin eta esperimentazioarekin lotutako proposamenak eskaintzea. Prozesu parte-hartzaileak sustatzea.
<b>Kameleoak gara!</b>	Haur eta familientzako jardura-programa, arte biziak, zine-saioak eta arte-lantegiak eskaintzen dituena.	Haur eta familiei artearekin eta esperimentazioarekin lotutako proposamenak eskaintzea.
<b>Itsaspeko gorria</b>	Familian sorkuntza lantzeko, materialak deskubritzeko eta horiekin jolasteko saioak. 1-4 urteko haurrei zuzendua.	Sorkuntza- eta teknologia-baliabideak haur, gazte zein helduen eskura jartzea.  Sorkuntza eta aisialdia batzen dituzten harremantzeko topaguneak eskaintzea.
<b>Medialab magnolietan</b>	Uztaila eta abuztuan zerbitzua Tabakalera eraikineko hormetatik atera eta eraikinaren atarira jaitsi genuen Medialabeko zerbitzuaren eta programaren zati bat.	
<b>Udaberriko eta neguko opor garaietako programazioa familientzat</b>	Gazteentzako sorkuntza lantegia, koloretako itzalak, serigrafia lantegia, arte, zientzia eta teknologia lantegiak familientzat, zigiluak egiteko lantegia, orrialde markatzaileak egiteko lantegia, tamagotchi tailerra, itsasontzi elektrikoekin esperimentatzen, gauz ibiltzeko betaurreko argidunak sortzeko tailerra, etab.	



Situ-akzioak. Priscila Fernandes.



Medialab magnolietan.



# HEZKUNTZA-KOMUNITATEARENTZAKO ETA BESTELAKO KOLEKTIBOENTZAKO ESKAINTZA:

Programa	Deskribapena	Helburu estrategikoak
<b>Taldeentzako lantegiak</b>	<p>Arte-lantegiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakusketara atera. Erakusketak-arte garaikidea</li> <li>• Karaoke. Soinu-arte</li> <li>• Soka saltoan. Performancea</li> <li>• Situ-akzioak. Esperimentaziorako paisaiak</li> </ul>	<p>Zenbaitetan urruneko edo arrotz bezala ikus daitekeen arte-erakusketaren eremuan egoteko eta harekin harremantzeko modu berriak proposatzea, formatu artistiko garaikideak erabiliz.</p> <p>Haur eta gaztetxoei artearekin eta sorkuntzarekin esperimintatzeko baliabideak eskaintzea.</p>
	<p>Zinema eta ikus-entzunezkoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Soinu lab. Soinu-lantegia</li> <li>• Bideogileak. Zinema-sorkuntza</li> <li>• Mugi, geldi, movie. Animazioa</li> <li>• Zinemaraaaa. Zinema-aretoa ireki da</li> </ul>	<p>Tabakaleraren baliabide eta lan-filosofia hurbiltzea, eta ezagutza praktikoak erdigunean jartzea, egitearen kulturak jakintza sortzen duela aldarrikatzeko.</p>
	<p>Sorkuntza-laboretegiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Koloretako itzalak. Argia eta gorputza</li> <li>• Harri, orri, ar! Autoedizioa</li> <li>• Irudi two. Grabatua</li> <li>• Tin.ta! Serigrafia</li> <li>• Ispilu-irudiak. Kontakizun kolektiboak</li> <li>• Robot, bi, hiru. Robotika</li> <li>• Plastik fantastik. Birziklapena</li> <li>• Game on. Bideo-jokoak</li> <li>• Konektatzen. Elektronika eta programazioa</li> </ul>	

Programa	Deskribapena	Helburu estrategikoak
<b>EQZE, Erasmus+</b>	<p>Elías Querejeta Zine Eskolako ikasleekin, eta Europako hezkuntza, formakuntza, gazteria eta kirola bultzatzeko EBeko Erasmus+ programako taldekideekin egindako lana.</p>	<p>Tabakaleraren baliabide eta lan-filosofia hurbiltzea, eta ezagutza praktikoak erdigunean jartzea, egitearen kulturak jakintza sortzen duela aldarrikatzeko.</p>
<b>Ikasgelatik Medialabera</b>	<p>Eskolaren esparrutik irten eta Medialab bezalako espazio inspiragarri batean egitasmo bat gauzatzeko aukera ematen duen proiektua, zerbitzu desberdin bat eta eskaintzen dituen aukera guztiak erabiliz.</p>	<p>Eskolei irakasgai bat modu berritzaile batean emateko aukera eskaintzea, praktika eta esperimintazioa ohiko prozesu batean txertatuz.</p>
<b>Praktikastika</b>	<p>Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bati eskola-eremuan artea beste modu batzuetara jorratzeko aukera ematen dion proiektua.</p> <p>Salesianos Donostia Ikastetxearekin garatu zen 2022/2023 ikasturtean.</p>	<p>Eragile ezberdinen arteko harremanean sakondu, elkarrekin bide berriak esploratu eta hausnarketa bateraturako espazioak sortzea.</p>
<b>Proiektuen Plaza</b>	<p>Proiektu-deialdi ireki eta jarraia da eta kultura digitalaren, diseinu irekiaren eta ezagutza partekatuen arloko proposamenak jasotzen ditu. 2021etik aurrera deialdia jarraia da.</p>	<p>Hiritar-taldeek sortu eta esperimintatzea, eta erronka sozialei buruz hausnartzea.</p>
<b>Talde Irekiak</b>	<p>Kezka partekatu batetik abiatuta elkartzeko beharretik sortzen dira, presarik gabe, helburu zehatzik gabe, ideiak, praktikak eta ezagutza kontrastatzeko eta partekatze gogoak bultzatuta. 2023 urtean zehar hamar talde aritu dira lanean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Risografia</li> <li>• Precious Plastic</li> <li>• Herritar astronomia</li> <li>• Aluminium Hat</li> <li>• Zinema eta teknologia</li> <li>• Food hack lab</li> <li>• Emak kantua</li> <li>• Arte 22</li> <li>• Neurohacking Medialab</li> <li>• Betile crocanti</li> </ul>	

Programa	Deskribapena	Helburu estrategikoak
<b>Harrotu ileak</b>	<p>Identitatea, harremanak eta gazteak ardatz dituen lantegi jarraia.</p> <p>Darkum elkartearekin lankidetzan antolatzen da.</p> <p>Udan erakusketa bat antolatu zen Nagore Legarreta argazkilariaren eta proiektuan parte hartzen duten gazteen elkarlanarekin: <i>Ireki, elkartu, eraiki. Hurbiltzeak eragin egiten digu.</i></p>	<p>Artea, kultura eta sorkuntza baliabideak edozein adin, jatorri eta egoera duten pertsonen eskura jartzea.</p> <p>Komunitate harremanak, errespetuan eta berdintasunean oinarrituta, sendotzea, artearen eta sorkuntzaren bidez.</p>
<b>AGIFES taldea</b>	<p>Astero, AGIFESeko kideak Medialaben elkartu ziren mahai-jolasetan jolasteko.</p>	
<b>Gurutze Gorria. Crono</b>	<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Harrerako Sareko babeseko zentroetan bizi diren 12 urtetik gorako haur eta nerabeekin lan egin zen 2023an Medialaben. Helburua da arreta-kolektiboari kalitatezko arreta koherentea, koordinatua eta integrala eskaintzea.</p> <p>Talde honen beharrei erantzuten laguntzeko, hamabostean behin Medialaben lantegi-ekintza ezberdinak landu ziren urtean zehar.</p>	
<b>Garaguneak</b>	<p>Gros eta Amarako Garaguneekin elkarlan proiektu ezberdinak landu ziren urtean zehar.</p>	



Harrotu ileak.



Talde lantegia.

# 2. Komunikazioa

## 2023 urteko proiektu nagusienak

### Tabakalera digitala

Zentroak eremu digitalean egiten duen lanak oso emaitza positiboak ekarri zituen 2023an. Ikus-entzunezkoen sorkuntza indartu genuen, eduki berriak eta segmentu bakoitzarentzat zuzenduak sortu, eta baita plataforma digitalen erabilera eraginkorragoa egin ere.

Bestalde, lanketa sakona egin genuen plataformak edukien eta publikoen beharren arabera sailkatu eta eskaintza segmentatuago bat egiteko. Urteko erabiltzaile datuek berretsi egiten dute estrategia horren eraginkortasuna.

**Webgunea:** Erabiltzailearen ikuspuntuan eta beharretan oinarrituta dagoen plataforma digitalak informaziorako eta eduki digitalen kontsumorako tresnarik arrakastatsuen izaten jarraitzen du Tabakalera. Urtean 367.470 saio izan zituen zentroaren webguneak, eta bai kultur eskaintza publikoari, eta informazioa eskuratzeko bide nagusia izaten jarraitu zuen, bai kultur eskaintza publikoari, bai artista eta sortzaileei zuzendutako deialdiei dagokionez, aurreko urteetako joera mantenduz aurreko urteetako joera mantenduz.


**Sare sozialak:** Kultur edukien hedapena nabarmen handitu zen 2023an. Vimeo eta Youtubeko edukien bistak %490 igo ziren (23.095 bista izan genituen 2022an, eta 136.333, 2023an), Tabakalera antolatutako jarduerak, presentzialki ez ezik, eremu digitalean ere jarraipena dutela erakutsiz. Gainontzeko sare sozialetako jarraitzaile kopuruari dagokionez (Instagram, X, LinkedIn, Facebook), %5eko hazkundea lortu zuen Tabakalera 2022 urtearekiko. Uda garaian abiarazitako publizitate-kanpainak ere oso eragin positiboa izan zuen sare sozialetan.

**Pantailak:** Eraikin barruan eta kanpoan dauden pantailak ere informatu eta komunikatzeko tresna baliagarriak dira. 2023an pantailetan eskaintzen den edukia berriro zuten Tabakalera, bai eskaintzen den informazioari, bai izaera grafikoari dagokionez.

### Sareetako datuak


Jarraitzaileak  
125.801

Jarraitzaileen igoera %4,7koa izan da.



### Erabiltzaileen esperientzia


Bisitariek eraikinean egiten duten erabileraren esperientzia hobetzeko helburua izan zen 2023ko erronka nagusietako bat, bigarren urtez. Eraikina ezagutu, erabili eta bertan ondo orientatzeko bide berriak aztertu genituen, eta lanketa sakona egin genuen espazioek bere eskaintzen dituzten komunikazio-aukerak hobeto baliatzeko eta, aldi berean, eraikinean koherentzia grafiko lortzeko. 2023an, kultur eskaintzaren informazioa argiago helarazteko seinale-tika-moduluak garatu ziren programazioa eskaintzen duten aretoen aurrean, eta baita sarreretan ere, eta informazioa aurkezteko era eta irudi grafiko berriro ziren. Eraikina bera kanpoaldean ere izendatzea, eta sarbidea erraztea izan ziren beste esku-hartzeetako batzuk.





## Prensa-kabinetea

Tabakalerako edukien hedapenean ezinbestekoak diren **komunikabideekin harremana** estutzeko lanean jarraitu genuen 2023an, edukien araberako eskaintza segmentatua planteatuz.



## Agerraldiak komunikabideetan





## Publizitatea

Publizitateari dagokionez, 2023an erabiltzaile orokorrarengan jarri zen arreta. Tabakalera edonork, bertako nahiz kanpotar, kulturaz eta aisiaz gozatzeko amaigabeko eskaintza duen leku gisa duen indarra azpimarratu zen udako opor garaian zentratutako publizitate-kanpaina handi baten bidez. Irismen eta ikusgarritasun handiko kanpaina izan zen, eta harrera bikaina izan zuen publikoaren artean.





# 3.

## Kudeaketa

Antolakuntza eta kudeaketaren ikuspegitik, 2023 urtea mugarri bat izan zen Tabakalerarentzat. Izan ere, 2022 urtean onartu ziren **enplegua egonkortzeko prozesuak** aurrera eraman baitziren, eta 26 lanpostu egonkortu ziren guztira. Lanpostu hauen eta aurreko urteotako beste lanpostu batzuen egonkortze-prozesuekin, Tabakalerako ia lantalde osoa geratu zen egonkortuta 2023 amaieran. Egoera honi esker, etorkizunean antolakuntza eta pertsonen kudeaketarako epe luzeko estrategia bat garatu ahal izango du Tabakalerak.

Pertsonen kudeaketarekin jarraituz, 2023an **lan hitzarmen berria** sinatu ahal izan zen datozen lau urteetarako, egonkortze-prozesuekin batera lan harremanen egoera egonkortzen lagunduko duena.

**Eraldaketa digitalari dagokionez**, 2023an aurrerapauso handiak eman ziren datuen ustiapena ahalbidetzen duen Business Intelligence tresnaren garapenean. Honi esker, Tabakaleran hartzen diren erabakiek bisitari eta erabiltzaileengan duten inpaktua neurtzeko gai izan da erakundea, iturri ezberdinetako datuak gurutzatuz.

Bestalde, aurreko urtean abiatu zen CRM plataformaren ezarpena abiarazi zen 2023an, kontaktuen kudeaketa zentralizatua ahalbidetzen duena.

Azkenik, barne kudeaketako hainbat tresnetan hobekuntzak garatu ziren, lan fluxuen optimizazioa lortzeko.

**Finantzaketaren ikuspegitik**, bi gai azpimarratuko genituzke. Alde batetik, Tabakalerak inoizko zerbitzu-kontraturik handiena lortu zuen Alemaniako gobernuarentzat artea, zientzia, teknologia eta gizartea alorreko ikerketa proiektua aurrera eramateko, 302.000 euroko diru-sarrerara lortuz, CIRCE programaren baitan.

Bestetik, kanpo ekitaldietarako **espazioen alokairu eta zerbitzuei dagokienez**, bigarren urtez jarraian inoiz izandako diru-sarrerara marka altuena gainditu zen 2023an, eta Tabakaleraren posizionamendua nabarmen indartu zen alor honetan.

Bi gertaera hauek, eta orokorrean izandako diru-sarreraren emaitza positiboak, **autofinantzaketa ratioa %29koa izatea ekarri zuten 2023an**.

**Gastuen ikuspegiari dagokionez**, gasa eta argindarraren prezioen beherakadak, aurrekontuarekiko aurrezpen handia ekarri zuen 2023an, aurreko urteko alderantzizko joera ekarriz, hain zuzen ere.

## 1. Pertsonen antolakuntza egitura, talde-kultura eta kohesioa sustatzea

Proiektua	Deskribapena	Helburu estrategikoak
<b>Enplegu-egonkortasuna</b>	27 laposturen egonkortzea gauzatu zen 2023an, aurreko urtean hauen guztien onarpena jaso ondoren.	Tabakalerako lanpostuen egonkortasuna gauzatzea eta, honekin, lankideen egonkortzea lortzea, legeak ahalbidetzen duen neurrian.
<b>Hitzarmen kolektiboa</b>	Tabakalerako lan hitzarmen berria sinatu zen eta 2023ko uztailaren 1ean jarri zen indarrean, datozen lau urteetarako.	Lan harreman egokiak izatea eta bizikidetzak baketsua bermatzea.
<b>Deskonexio digitala</b>	Lanaldia erregistratzen duen sistemaren bitartez lankideen presentziaren ikusgarritasuna ahalbideratu zen.	Deskonexio digitalari buruzko lanketaren lehenengo urratsak ematea.
<b>Lan arriskuen prebentzioaren formakuntza</b>	Lan arriskuen inguruko formakuntza zabaldu zen lantaldean: lehen sorospenak, desfibriladorearen erabilera eta suteen prebentzio eta itzalketari buruzko ikastaroak antolatu ziren.	Lankideen artean formakuntza zabaltzea eta ezagutza eguneratzea.

## 2. Digitalizazio estrategia

Proiektua	Deskribapena	Helburu estrategikoak
<b>Langileen digitalizazioa</b>	<p>Erabiltzen diren kudeaketa tresnak aztertu eta doitu ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Business intelligence tresna, kudeaketa eta edukien analisi beharretara doitzea.</li> <li>• Hornitzaileen plataforma garatzea, datu eta eskaeren bisualizazioa errazteko.</li> <li>• Ordezkaritza atala sortzea intranetean.</li> </ul> <p>Lan prozesuak hobetzeko proiektuak garatu ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• CRM tresna jarri zen martxan, kontaktuen kudeaketa erraztu eta gonbidapenak zabaltzeko.</li> <li>• Tresnen arteko integrazioan sorturiko akatsak ikusteko alertak jartzea.</li> <li>• Eraikineko pantailen kudeaketen digitalizazioa garatzea.</li> <li>• Ikus-entzunezko gailuen mantenua kudeatzea.</li> <li>• Prisma sisteman integratzea</li> <li>• Ikus-entzunezko gailuen erreserba sistema Medialabeko plataforman integratzea.</li> </ul>	Langileen hobekuntza jarraia eskaintzea, lan prozesuak errazteko.
<b>Erabiltzaileekiko harremana digitalizatzea</b>	<p>Baliabide berriak ezarri ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Medialaben inprimatze publikoko zerbitzua ezartzea, norberak bere dokumentuak inprimatzeko baliabidea eskuragarri izateko.</li> </ul>	Erabiltzaileen esperientzia hobetzea.
<b>Zibersegurtasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2023ko azken hiruhilabeteetan, Tabakaleraren sistema eta prozesuen segurtasun azterketa egin zen.</li> <li>• Hurrengo urteetarako ENS-ra (Esquema Nacional de Seguridad) doitzeko proiektua.</li> <li>• GAP analisia egin zen.</li> <li>• Beharrezkoak diren proiektuen roadmapa marraztu zen.</li> </ul>	Segurtasun lege eta berrietara egokitzea
<b>Sistema azpiegituren digitalizazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2 WSUS zerbitzarien instalazioa, Windows aplikazioen eguneratzeak domeinuan kudeatzeko.</li> <li>• Sistema berri baten garapena, Medialaben erabiltzaileek filmak ikus ditzaten.</li> <li>• Hornitzaileekin daukagun komunikazioan fitxategi handien kudeaketa integratzea, Mediashuttle bidez.</li> <li>• Medialabeko pertsonen kontagailua eraikin osoko plataforma orokorrera egokitzea.</li> </ul>	Legeari doitutako sistema eraginkorrenak ezartzea.

## 3. Diru-sarrera eta gastu egitura, lankidetzaren publiko eta pribatuaren eredu

Eremua	Deskribapena
<b>Diru-sarrerak</b>	<p>2023ko diru-sarrerek %11 egin zuten gora 2022koekin alderatuz, batez ere artea, zientzia, teknologia eta gizartea eremuan, Alemaniako gobernuarekin sinatu zen eta 302.000 euroko diru-sarrera ekarri zuen ikerketa-kontratu bati esker (CIRCE proiektua). Bestalde, aurrekontuarekin alderatuta, diru-sarrera errealak %3an gainditu zuen aurrekontua.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ekitaldietarako espazioen alokairua eta zerbitzuak:</b> 2023an lortutako emaitzak Tabakalerako marka historikoa gainditu zuen berriro ere, azken urteetako etengabeko hazkundearekin jarraituz. 2023ko aurrekontuko helburua %25ean gainditu zen.</li> <li>• <b>Eraikinetik datozen diru-sarrerak:</b> Ostalaritza jarduerak COVID ondorengo emaitzarik onenak lortu zituzten 2023an.</li> <li>• <b>Babesletza:</b> Diru-laguntza eta babesletza aldetik urte oparoa izan zen 2023a, artea, zientzia, teknologia eta gizartea arloko proiektuek bultzatuta.</li> </ul>
<b>Gastuak</b>	<p>Gastuei dagokienez, aurrekontuarekiko desbideratzea %3koa izan zen, guztira. Gasaren eta argindarraren igoerak aurrekontuan aurreikusitakoak baino askoz ere baxuagoak izan ziren eta, ondorioz, gastuak murriztu ahal izan ziren.</p>

## 4. Kudeaketa sistema berria, prozesu eta proiektukako kudeaketan oinarritua

Proiektua	Deskribapena	Helburu estrategikoak
<b>Publikoekiko harreman-estrategia eta hura ezartzeko beharrezkoak diren arreta- eta bitartekaritza-zerbitzu orokor eta espezifikoen definizioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakusketetako, info-puntuako, leihatilako eta zineko arreta zerbitzua kontratu bakar batean esleitu zen, publikoarekiko harreman-estrategia eta zerbitzu maila bateratu bat bermatzeko.</li> </ul>	Tabakalerako erabiltzaileei kalitatezko arreta zerbitzu bat eskaintzea, eta Tabakalera eraikinaren kudeaketan eta zerbitzuetan optimizazioa lantzea.
<b>Prozesuen hobekuntzarako hausnarketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Artea, zientzia, teknologia eta gizartea ildoan departamentu ezberdinetako zeharkako lantalde bat sortu zen, proiektuaren gauzatzea eta kudeaketa modu berritzaile batean gauzatzeko.</li> <li>• Online erosketak egiteko prozedura berdefinitu zen.</li> <li>• Edukiak webgunera eta ticketing plataformara igotzeko lan prozesu estandarizatua definitu zen..</li> </ul>	<p>Proiektukako kudeaketan sakontzea eta proiektuen zeharkakotasuna ahalbidetzea.</p> <p>Prozesuak homogeneizatzea efizientzia eta segurtasuna bermatzea.</p>

## 2023ko aurrekontu exekuzioa

Diru-sarrerak	2023 aurrekontua	2023 exekuzioa	Aldea	Aldea %
Kudeaketa	1.072.040,19	1.063.339,07	-8.701,12	%-1
Edukiak	450.725,00	518921,08	68.196,08	%15
Garapen arloa (garbia)	325.000	407.737	82.737,00	%25
Komunikazioa	0,00	1216,13	1.216,13	-
Izendunak	590.000	517.374,98	-72.625,02	%-12
<b>Diru-sarrerak guztira</b>	<b>2.437.765,19</b>	<b>2.508.588,26</b>	<b>70.823,07</b>	<b>%3</b>

Pertsonal gastuak	2023 aurrekontua	2023 exekuzioa	Aldea	%Aldea
Kudeaketa	828.712,24	816.164,28	12.547,96	%2
Edukiak	889.731,84	848.207,91	41.523,93	%5
Garapen arloa	93.766,8	94.104,88	-338,08	%0
Komunikazioa	393.017,31	388.993,1	4.024,21	%1
Izendunak	112.397,28	100.926,65	11.470,63	%10
<b>Pertsonal gastuak guztira</b>	<b>2.317.625,47</b>	<b>2.248.396,82</b>	<b>69.228,65</b>	<b>%3</b>

Gastu arruntak	2023 aurrekontua	2023 exekuzioa	Aldea	Aldea %
Kudeaketa	2.358.812,00	2.315.406,34	43.405,66	%2
Edukiak	1.940.725,00	2.037.896,67	-97.171,67	%-5
Komunikazioa	413.000,00	426.414,66	-13.414,66	%-3
Izendunak	477.602,72	416.448,33	61.154,39	%13
<b>Gastu arruntak guztira</b>	<b>5.190.139,72</b>	<b>5.196.166,00</b>	<b>-6.026,28</b>	<b>%0</b>

<b>EMAITZA GUZTIRA</b>	<b>5.070.000,00</b>	<b>4.935.974,56</b>	<b>134.025,44</b>	<b>%3</b>
------------------------	---------------------	---------------------	-------------------	-----------

# 4.

## 2022-2025 Plan estrategikoaren jarraipena

### 2023ko jarraipen-txostena

#### 1. Lan-eremu estrategikoak

**LE\_1**

ARTEA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA GIZARTEA

**LE\_2**

SORTZAILEEI LAGUNTZEKO MODU BERRIAK

**LE\_3**

IKUS-ENTZUNEZKO HUB-a

**LE\_4**

ERAKUSKETA ESKAINTZA

**LE\_5**

GOBERNANTZA BERRIAK ETA KOMUNITATEEKIKO LANA

**LE\_6**

ESPAZIO PUBLIKOA

**LE\_7**

JASANGARRITASUNA

## 2. Proiektu estrategikoak

		2022 2023	2024
<b>LE_1</b> <b>ARTEA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA GIZARTEA</b>	<b>P.01</b> Aurrekontu-esparrua (2022-2025) eta taldearen antolakuntza zehaztea, zeharkako ikuspegiarekin. Horiek osatzea kanpo-finantzaketarako aukerak bilatuz, estatuko eta Europako sareen bidez, eta taldeak indartzea kanpoko kolaboratzaileen bidez.		
	<b>P.02</b> Especializazio-arloak zehaztea (gastronomia, AA, jasangarritasuna) eta lankidetzarako esparru-akordioak finkatzea zientzia, teknologia eta industriako eragileekin, proiektuak garatu eta elkarrekin ekoizteko.		
	<b>P.03</b> Prozesu eta emaitzen ikusgarritasuna lantzea, Tabakaleraren kontakizuna egituratzeko kokreazio-laborategi gisa.		
	<b>P.04</b> Arlo horretan lan egiten duten artista eta komisarioen tokiko ehuna indartzen laguntzea, eta nazioartean erreferenteak diren artista eta erakundeekin lankidetzaproiektuak sustatzea, gure nazioarteko posizionamendua indartzeko.		
	<b>P.05</b> Gizarte-berrikuntzaren ikuspuntua gehitzea artea, zientzia, teknologia eta gizarte arloko proiektuetan, herritarrek parte hartzeko formulak sustatuz.		
<b>LE_2</b> <b>SORTZAILEEI LAGUNTZEKO MODU BERRIAK</b>	<b>P.06</b> Sortzaileei (artistak, ikus-entzunezko arlokoak eta dantza garaikidekoak) eskaini beharreko zerbitzuak indartzea ikuspuntu zabalago batetik, ekosistemarekiko loturak indartuz eta erakundeekin lankidetzaproiektuak ezarri (BDCC, K Bulegoa...), sektoreari laguntzeko.		
	<b>P.07</b> Sortzaile eta artistei zuzendutako komunikazio espezifikoak sustatzea, online eta offline kanalen bidez, zerbitzu, baliabide eta programen eskaintza orokorra ezagutarazteko.		
	<b>P.08</b> Ikusarazteko jarduerak eta komunikazio-ekintzak sustatzea, Tabakalerak posizionamendu indartsuagoa izan dezan sortzaileei laguntzeko sorkuntza-zentro gisa, eta emaitzak kapitalizatze moduak identifikatzea.		
	<b>P.09</b> Nazioartekotze-estrategia eta truke- eta egonaldi-programak finkatzea, gai edo diziplinaren arabera espezifiko batzuk barne.		
	<b>P.10</b> Artisten Gunea eta 2de artearen eta ikus-entzunezkoen sektoreko topagune bihurtzea, komunitatea sortzen lagunduko duten jardueren programazio baten bidez.		



		2022	2023	2024
<b>LE_3</b> <b>IKUS-ENTZUNEZKO HUBa</b>	<b>P.11</b> Ekosistemarekiko sinergietan sakontzea, baita 2deoren balio-ekarpenean ere, Tabakaleraren zinemaren eta ikus-entzunezkoen estrategia bateratuan.			
	<b>P.35</b> Sortzen ari den talentuari laguntzeko eta Tabakalerako ekosistemako zinema eta ikus-entzunezko proiektuak garatzeko laborategian 2deoren eraldaketarako-proiektua egitea.			
	<b>P.12</b> Ikus-entzunezko sektoreko espazioen, baliabideen eta programen eskaintza definitzea, lankidetzan direnak edo propioak, laguntzeko modu berriak eta bete beharreko arloak identifikatuz.			
	<b>P.13</b> Diziplinartekotasuna indartzea artearen eta ikus-entzunezkoen artean, eta ikus-entzunezkoetako lan-ildoen lotura indartzea Tabakalera sortzeko eta esperimintatzeko zentroa izatearekin.			
	<b>P.14</b> Talentuak erakarri eta 2deoren xede-publikora iristeko estrategia bat garatzea, eskaintzen dituen programak, baliabideak eta zerbitzuak egokituz, komunitatea sortu eta publiko horren beharrei erantzuteko.			
	<b>P.15</b> 2deo bidez sustatu beharreko eduki motak identifikatzea eta eraginkortasunez komunikatzea: merkatuaren logikatik kanpo dauden euskarazko edukiak, eduki digitalak, formatu berriak eta gazteei zuzendutako eduki berritzaileak.			
	<b>P.39</b> Ikus-entzunezko laborategi berrituaren egokitzapen espaziala, saretzea eta indartzea.			
	<b>P.40</b> Laborategiaren komunikazio estrategia definitu eta garatzea.			
<b>LE_4</b> <b>ERAKUSKETA ESKAINTZA</b>	<b>P.19</b> Erakusketak zeharka landu daitezten sustatzea, eskaintza aberasteko, eta bitartekaritza helburu estrategikotzat hartzea, bai publikoa erakartzeko bai erakusketa barruan eskaintzen diren edukiak hobeto ulertzeko.			
	<b>P.20</b> Estatuko eta nazioarteko komunikabide espezifiko eta orokorretan Tabakaleraren erakusketa-eskaintzaren presentzia indartzea.			
	<b>P.36</b> Erakusketa-aretoak ez diren erakusketak egiteko beste espazio eta formatu batzuk detektatzea.			
	<b>P.38</b> Prisma eta Plazarako instalazio artistikoak definitu eta planifikatzea 2025 urterako.			

		2022	2023	2024
<b>LE_5</b> <b>GOBERNANTZA BERRIAK ETA KOMUNITATE-EKIKO LANA</b>	<b>P.21</b> Gobernantza-eredu berritzaileak ezagutzea eta aztertzea ikuspegi desberdinetatik, eta entzute aktibo iraunkorreko mekanismoak ezartzea.			
	<b>P.34</b> Publikoekiko harreman-estrategia eta hura ezartzeko beharrezkoak diren arreta- eta bitartekaritza-zerbitzu orokor eta espezifikoak definitzea.			
	<b>P.37</b> Programazioan komunitate ezberdinek parte hartu dezaten sustatzea, publiko berriak erakartzeko.			
<b>LE_6</b> <b>ESPAZIO PUBLIKOAK</b>	<b>P.25</b> Hirigintza-plan bat aktibatzea, denok erabiltzeko espazioak sortuz edo gailu bereziz hornitutako espazioak lagatuz, Tabakaleraren egiteko moduari erantzunez, topaketarako, atsedenerako edo lanerako balioko dutenak.			
	<b>P.27</b> Eraikineko seinaletika osatzea hobeto ikusten diren formatuekin, espazioen dimentsioekin bat datozenak eta entzuteko edo ikusteko desgaitasunen bat duten pertsonentzako irisgarritasuna kontuan izango dutenak.			
	<b>P.28</b> Eraikinean bitartekaritza aktiboago bat lortzea, erabiltzaile-talde anitzagoen inplikazioa sustatuz.			
	<b>P.30</b> Hirigintza-jardueretarako edo altzarientzako inbertsio-plan bat diseinatzea.			
<b>LE_7</b> <b>JASANGARRITASUNA</b>	<b>P.31</b> Diseinua eta berrikuntza, herritarren sormena eta ekonomia zirkularra batuko dituen programazio-ildoak sortzea, "Tabakalera berdea", Europako Bauhaus Berria ekimenaren balioen ildoan.			
	<b>P.33</b> Tabakalera eraikinean eraginkortasun energetikoaren eta jasangarritasunaren plana ezarri eta burutzen jarraitzea, Europar Batasunak 2030erako ezarritako jasangarritasun helburuen eta 2023rako Euskadiko Energia Estrategiaren esparruan.			

2024

<b>BP BERDINTASUN PLANA</b>	Protokoloaren bertsio definitiboa argitaratu eta lantaldean zabaltzea.	
	Lantaldean trebakuntza bat egitea eta ekosistemako beste erakundeak informatzea.	
	Protokoloa webgunean argitaratzea.	
	Emakume sortzaileei eta sorkuntzarako laguntza jasotzen duten emakumeei buruzko adierazleen jarraipena egitea.	
	Erabiltzaileei buruzko datuak eskuratzea eta informazioaren jarraipena egitea.	
<b>EP EUSKARA PLANA</b>	Euskara planean (2002-2025) jasotzen diren ekintza jarraituen jarraipena egitea.	
	Tabakalerako hizkuntza jarraibideen dokumentua definitu eta ezagutaraztea.	
	Hizkuntza jarraibideekin lotuta, erabiltzaileekiko harrera-hizkuntzaren protokoloa definitu eta ezagutaraztea.	
	Programari dagokionez, urtez urte eta arloz arlo, euskararen presentzia indartzeko irizpideak zehaztea.	

# 5. Adierazleak

## 2022-25 Plan estrategikoari dagozkion adierazleak

2023		Helburua	Eraitza	2022
<b>Sorkuntzaren sustapena, kulturaren ekonomian eta hainbat sektoretan eragina sortuz</b>	Programazioan parte hartu duten sortzaile eta kultur eragile kopurua	500	<b>516</b> 220 GIZON 296 EMAKUME	542
	Programa eta/edo baliabideen bidez Tabakalerak lagundutako sortzaile kopurua	270	<b>294</b> 102 GIZON 192 EMAKUME	258
	Sortzaileen balorazioa beraien programarekiko	8.5	<b>8.7</b>	9
	Arte, zientzia, teknologia eta gizarte alorreko sorkuntzako proiektu kopurua	7	<b>12</b>	7
	Arte, zientzia eta teknologia eremuko lankidetzeta-proiektuetan Tabakalerak bidelagun dituen beste sektoreetako eragile kopurua	6	<b>8</b>	4
	Tabakaleraren parte-hartzea duten jasagarritasunari buruzko europar sare eta proiektu kopurua	3	<b>3</b>	2
<b>Zentro-eredu berritzailea, izaera dinamiko handikoa, sektoreko aldaketekiko iragazkorra</b>	Estatuko eta nazioarteko zentroekin Tabakalerak duen elkarlan kopurua	25	<b>24</b>	24

2023		Helburua	Eraitza	2022
<b>Herritarren harreman estua sorkuntza garaikidearekin, programazio esanguratsu baten bidez</b>	Programazioko parte-hartzaileen ratioa bisitariekiko (KGNZ)	%43	<b>KGNZ %50,9</b> <b>TBK OSOA %59,7</b>	%43,32
	Erakusketetako bisitari kopurua	125.000	<b>175.263</b>	156.678
	Bisitarien balorazioa erakusketei buruz	8	<b>7.7</b>	7.1
	Erabiltzaileen balorazioa Tabakalerako programazioari buruz	8	<b>8.2</b>	8.1
<b>Berdintasun plana</b>	Programazio publikoan parte hartu duten emakumezko sortzaile eta kultur eragile kopurua (%)	%50	<b>%57,36</b>	%55,17
	Programa eta/edo baliabideen bidez Tabakalerak lagundutako emakume sortzaile kopurua (%)	%50	<b>%65</b>	%59,69
<b>Euskara plana</b>	Planaren betetze maila (urteko helburuarekiko)	100%	<b>90%</b>	100%






TABAKALERA



KULTURA GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO ZENTROA

©2023



**INFORMAZIOA**

T. +34 943 118 855  
E. info@tabakalera.eus

**BULEGOA**

T. +34 943 011 311  
E. tabakalera@tabakalera.eus

Andre Zigarrogileak plaza 1,  
20012.  
Donostia/San Sebastián  
tabakalera.eus

